

#30 / 2022 UZTAILA

artelka



**BIZITZAREN
GARESTITZEA II**

GEDAR

— Soldataren degradazioa prozesu historikoa da, eta kapitalismoaren hastapenetatik bete du funtzio berezi hau: lan-indarrari bere erresistentzia gaitasun politikoak eraustea, bere funtzio konkretuen sinplifikazioaren bitartez –funtzioak galtzeraino–. Sinplifikazio horrek potentzia sozial zentralizatuen menpeko bilakatzen du langile klasea, hau da, gaitasun sozialak kondentsatzen dituen Kapitalaren menpeko, bai ekoizpen prozesuan bertan, bai Kapitalaren zirkulazioaren esferan, non Estatuak eta bere alderdi aparatuek kontzientzia kolektiboaren irudia ordezkatzeko duten.

Edukia

6

10

38

52

EDITORIALA

Arteka

Soldataren degradazioa

KOLABORAZIOA

Iker Narbona eta
Imanol Hernandez

Energia eta garraioa: garai baten agortze-sintomak

ERREPORTAJEA

Jose Castillo

Langile hipotekatuetatik langile pobreetara: soldaten historia Espainiako Estatuan

IKUSPUNTUA

Carmen Parejo

Faxismoa Espainiako Estatuan: frankismoa

Soldataren degradazioa

Editoriala

Inflazioaz jardun genuen aurreko alean, 'bizitzaren garestitzea' gaia lantzen duen lehenengoan. Bigarren honetan, azkena, soldataren auzian sakondu nahi dugu, aurrekoan landutakotik tiraka. Lehenengo eginbeharra hau izan zen: erakustea prezioen igoera orokorrak ez duela kontsumitzailea kaltetzen, langile klasea baizik. Izan ere, bizitzaren garestitzeak, Kapitalaren ekoizpen prozesuari dagokionez, esparru produktibo zehatz batzuk kaltetzen dituenean, ez du giza eskubide unibertsal bat kaltetzen –modu idealean guztioi legokigukeen kontsumo bidezko gaitasunen jabetza–, lanaren esplotazio prozesua baizik. Zehazki, kaltetzen duena langile klasearen lan-indarra merkantzia da, hau da, horrek balioa edo beharrezko lan soziala sortzeko duen gaitasuna.

Kaltetze hori aurreko zenbakian landu genuen debaluazio gisa: inflazioak soldataren jaitsiera erlatiboa dakar, hots, lan-indarraren balio galera. Oraingoan, baina, debaluazioa degradazio gisa agertzen zaigu: ez da balio galera erlatibo soil, lan-indarrak erabilera balioa ere galtzen du. Hori modu honetan gertatzen da: burgesiaren ikuspegitik eta ekoizpen kapitalistaren beharren arabera, lan-indarraren erabilera produktiboak errentagarri izateari uzten dio ekoizpenak berak errentagarri izateari uzten dion heinean, eta adar jakinetan Kapitalarentzat erabilgarri izateari uzten dio, bere ekoizpen-potentziak suntsituz.

Soldataren debaluazioa prozesu iraunkorra bada ekoizpen kapitalistak aurrera egin dezan, soldataren degradazio hori, zeina lotuta agertzen baita lan-indarraren erabilera balioarekin, ekoizpen kapitalistaren etenaldi edo krisi gisa agertzen da. Langileria bera degradatu egiten da prozesu horretan, burgesiak bere boterea indartzen duen bitartean, bidean kapitalista indibidualak galtzaile irte ten badira ere.

Lan-indarraren degradazio horrek degradazio soziala dakar berekin: erabilgarri ez den langilea sozialki zokoratuta geratzen da. Horrek babesgabe ere uzten du, eta kanpotik datorren babes batekiko babesgabe. Langile masa zabalak artifizialki mantentzen dira bizirik, estatu kapitalistaren esku-hartze bitartez. Modu horretan, Kapitalaren indar politiko bilakatzen dira. Alde batetik, soldataren legea egikaritzeko bitartekaria da degradatutako langilea –erreserbako industria-armada–. Baina, bestetik, hori ez da gertatzen hain modu zeharkakoan eta espontaneoan bakarrik.

Lanaren esparru produktibotik kanporatua izan den langilearen bizitzaren esparru guztiak instituzio kapitalisten –Estatua, alderdiak, familia, eta abar– kontrolaren menpeko bilakatzen dira. Horren bitartez politikaren aukerak itxi egiten dira, bere lekuan administrazio burokratiko eta totalitarioa ezartzen baita, bizitzaren gaineko kontrola ezarriz. Bizirik mantentzen gaituen aitaren figurak indar handia hartzen du horrela, eta horrelako baldintzetan hazi den gizasemeak dena zor dio aitari.

Lanaren esparru produktibotik kanporatua izan den langilearen bizitzaren esparru guztiak instituzio kapitalisten –Estatua, alderdiak, familia, eta abar– kontrolaren menpeko bilakatzen dira. Horren bitartez politikaren aukerak itxi egiten dira, bere lekuan administrazio burokratiko eta totalitarioa ezartzen baita, bizitzaren gaineko kontrola ezarriz

***Politikaren agerpen historikoa estuki
lotuta dago ekoizleen eta ekoizpen
bitartekoen arteko banaketarekin,
eta bere formarik egokienak
Estatua eta alderdi burokratikoak
dira. Izan ere, masa zabalaren
mugimendutik kanpo eta horien
gainetik antolatzen den sistema
politikoak beharrezkoa du, baldintza
gisa, masa zabal horiek antolatzeko
baldintzak deuseztaturik egotea***

***Sozialdemokraziak estatu
kapitalistaren esku-hartzea sustatzen
du bizitzaren esparru guztietan:
aberastasunaren birbanaketa,
politika sozialak, sektore publikoa,
babes politikak, etxeko lanen
soldata-ordainketa zuzena... Horien
guztien lorpen berehalakoena
ez da inoren bizitza hobetzea***

Estatu kapitalistak bere oinarri soziala soldatapeko lanean aurkitzen du, hots, lana eta lana gauzatu ahal izateko bitartekoen arteko banaketan. Bere justifikazio politiko eta ideologikoa, baina, babesaren figuraren pean gauzatzen da. Sistema kapitalistak babesgabe egiten dituen gizabanako horiek salbatzera dator estatua kapitalista, edo babesgabetasunaren ekoizpenaren bitartez ekoizten da estatua kapitalista behar sozial gisa. Estatu kapitalista, bada, babesgabetasuna ofizial egiten duen arrazionaltasun totalitarioa da, eta politika, kapitalismoaren mugetan izaten den politika hori, burokrazia totalitario baten borondate instituzionalizatua.

Politikaren agerpen historikoa estuki lotuta dago ekoizleen eta ekoizpen bitartekoen arteko banaketarekin, eta bere formarik egokienak Estatua eta alderdi burokratikoak dira. Izan ere, masa zabalen mugimendutik kanpo eta horien gainetik antolatzen den sistema politikoak beharrezkoa du, baldintza gisa, masa zabal horiek antolatzeko baldintzak deuseztaturik egotea. Horrek esan nahi du norbanakoa ezdeusa izan behar dela, hau da, besteekin biltzeko eta antolatzeko baldintzarik gabea; eta esan nahi du, bestalde, batasun hori, jarri behar bada, Kapitalak jarri behar duela, proletalgoak jar ez dezan. Horregatik, mugimendu zabalak antolatzen direnean, beti agertzen da egitura administratibo instituzionalizatu bat –sindikatuak kasu–, Kapitalaren borondatea betearazten dutenak, hau da, mugimendua beti Kapitalaren mugen arabera formulatzen dutenak, langile klaseak, langile klase izatetik eta izan nahitik, ezin baititu bere determinazio esentziala den Kapitala eta bere ekoizpen sistema gainditu, eta ezin baita subjektu burgesa ez den beste modu batean antolatu eta adierazi.

Aipatutako baldintzetan sortzen da politika, proletalgoaren gaineko menderakuntza sistema gisa. Politikaren iraunkortasunak, proletalgoaren esplotazio eta zapalkuntza esan nahi du; politikaren abolizioa, kontrara, bere oinarrien abolizioan datza: lanaren eta lan-baldintzen arteko banaketaren abolizioa, proletalgoaren antolakuntza demokratikoaren bitartez.


Bada, soldataren edo langile klasearen degradazioak politikaren hedapenerako baldintzak sortzen ditu, orain artean politika ulertu dugun forman: estatua-administrazio totalitarioaren politika hedatzeko, eta beraz, proletalgoaren gaineko menderakuntza zabaltzeko baldintzak sortzen ditu soldataren degradazioak. Baldintza horien egikaritze errealek, ordea, agente bereziak behar ditu eta horietan guztietan aurreratutena sozialdemokrazia da.

Sozialdemokraziak estatua kapitalistaren esku hartzea sustatzen du bizitzaren esparru guztietan: aberastasunaren birbanaketa, politika sozialak, sektore publikoa, babes politikak, etxeko lanen soldata-ordainketa zuzena... Horien guztien lorpen berehalakoena ez da inoren bizitza hobetzea. Aurreko zenbakian aipatu genuen bezala, politika horiek, termino absolutuetan izaten direnak, formulatzen diren unetik dira anakronikoak. Baina bada horietan iraungitzen ez den printzipiorik eta funtzio sozialik; izan ere, politika horien emaitza ukigarriena hau da: erlazio kapitalistaren erreproduktzioa, norbanakoa administrazio kapitalistaren tentakulu desberdinetan txertatuz eta horiekiko menpeko eginez gauzatzen dena. Hau da, estatua-politiken helburu nagusia politika komunistari aukerak ixtea da, eta ez inoren bizitza hobetzea.

Soldataren degradazioa prozesu historikoa da, eta kapitalismoaren hastapenetatik bete du funtzio berezi hau: lan-indarrari bere erresistentzia gaitasun politikoak eraustea, bere funtzio konkretuen sinplifikazioaren bitartez –funtzioak galtzeraino–. Sinplifikazio horrek potentzia sozial zentralizatuen menpeko bilakatzen du langile klasea, hau da, gaitasun sozialak kondentsatzen dituen Kapitalaren menpeko, bai ekoizpen prozesuan bertan, bai Kapitalaren zirkulazioaren esferan, non Estatuak eta bere alderdi aparatuek kontzientzia kolektiboaren irudia ordezkatzen duten. ●

Energia eta garraioa: garai baten agortze-sintomak

Testua **Iker Narbona eta**
 Imanol Hernandez
Irudia **Zoe Martikorena**



Energiaren eta garraioaren auziak garrantzi handikoak dira egungo krisi kapitalista ulertzeko. Bi eremu hauetan garestitzeak pisu nabarmena hartu du, eta, horretaz gain, estuki lotuta daude berregituraketa kapitalistak *trantsizio ekologiko eta digitalaren* norabidean planteatzen dituen aldaketekin. Gai ikaragarri zabala da honakoa; beraz, azaleko gerturapen bat egitea da artikulu honen asmoa.

Horretarako, lehenengo atalean energia iturrien auzia eta bizi dugun krisi ekologikoa testuinguruan kokatzen dira. Bigarren atalean, energia-horniduren eta garraioaren esparruek egungo egoeran betetzen duten papera ulertzeko zenbait elementu azaltzen dira. Eta azkenik, zenbait ohar solte aipatzen dira ondorio gisa.


1 ENERGIAREN AUZIA

1.1. Kokapena

Energia, fisikaren ikuspuntutik, materialak lan bat egiteko duen gaitasuna da, mugimenduak eragitea eta argia edo beroa sortzea, beste gauza batzuen artean, barnebiltzen dituen lan hitzaren zentzu zabalean. Gizakiak egunero-ko jardueretan bere energia erabiltzen duen bezala (elikaduraren bidez lortzen duena), gizarte kapitalistaren ekoizpen- eta zirkulazio-prozesuetan esku hartzen duten bitartekoek (askotariko makinak, ibilgailuak, etab.), kasu gehienetan, lehengaietatik datorren energia erabiltzen dute, lan-indar biziaren gain.

Formazio sozial kapitalistan *energiaren auziak* duen garrantzia ulertzeko, zenbait kontzeptu argitzea komeni da. Lehenik eta behin, *energia-iturri* deritzegu energia lortzea ahalbidetzen diguten baliabideei. Horiek *berriztagarriak* edo *berriztaezinak* izan daitezke^[1]. Iturri horietan dagoen energiaren erabileraren arabera, *energia primarioa* (eraldatu aurretik naturan eskura dagoen energia) eta *azken energia* (kontsumo zuzenerako prest dagoena) bereizten dira.

Gaur egun, energia primario horren iturri garrantzitsuenak petrolio, iktza, gas naturala, uranioa eta iturri berriztagarriak dira (batez ere biomasa, energia hidroelektrikoa, energia eolikoa eta eguzki-energia). *British Petroleum* multinazionalak, urtero, mundu mailako energia primarioaren kontsumoari buruzko erreferentziatzeko estatistikak argitaratzen ditu, eta horien arabera, 2020ko kontsumo globala honela banatu zen^[2]: petrolio % 31,2, iktza % 27,2, gas naturala % 24,7, energia nuklearra % 4,3 (uranio-atomoen fisioaren bidez lortua, nagusiki), energia hidroelektrikoa % 6,9 eta beste energia berriztagarri batzuk % 5,7 (eolikoa eta eguzki-energia, batez ere). Hau da, lau energia iturri ez-berriztagarriak guztizkoaren % 87,4 izan ziren, eta energia berriztagarriak, berriz, gainerako % 12,6.



Azken energia kontsumo zuzenerako prest dagoena da; ekoizpen-prozesuetarako, merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetarako, garrariorako edo etxeetako kontsumorako. *Energiaren Nazioarteko Erakundearen* (IEA) datuen arabera^[3], 2019an azken energiaren kontsumo globala honela banatu zen: % 40,4 petroliotik eratorritako erreagaiak (batez ere diesela eta gasolina), % 19,7 energia elektrikoa, % 16,4 gas natural prozesatua, % 10,4 bioerregaiak eta hondakinak, % 9,5 iktza, eta % 3,6 beste batzuk (bero forman dagoen energia eta elektrizitatea ekoiztera bideratzen ez diren energia berriztagarriak banebiltzen dituen kategoria).

Energia iturrien erabilerak berebiziko garrantzia izan du gizarte kapitalistaren garapen historikoan^[4]. *Kapitalismoaren historiaurrean*, kapitalaren jatorrizko metaketa, hein handi batean, burgesiak baliabide naturalak (lurrak, urak, basoak, meategiak, etab.) jabetzean oinarritu zen; lehenago landa-komunitateek kolektiboki erabiltzen zituzten baliabideak, kasu askotan. Jabetze biolento hori, bestalde, ez da eten gaur egun. Baliabide natural horien artean lehen mailako energia iturriak daude, besteak beste zura, iktza eta ibaietako energia hidraulikoa. Horrela, ekoizleen eta ekoizpen-bitartekoen (energia-iturriak barne) arteko bereizketa gertatu da, kapitalismoak giza bizitzako esparru guztiak merkantilizatzeko duen etengabeko joeran. Egurraren kasuak oso ondo erakusten du azaldu-takoa: garai batean, edonoren eskura zegoen beroa sortzeko baliabide hori, baina gaur egun, berriz, ez dago etxebizitza berotzeko era baimendurik, diruaren bitartekotzat ez bada, hau da, helburu horretarako balia daitekeen *ondasun energetiko* bat erosiz (gas naturala eta elektrizitatea kasu gehienetan, eta baita egurra bera ere, orain *merkantzia* formapean) ez bada.

1.2. Krisi kapitalistaren dimentsio ekologikoa

Krisi kapitalista sakon batean murgilduta gaude, eta krisi hori gizarteko hainbat esparrutan adierazten da. Larritasun nabarmena duen krisiaren dimentsioetako bat *ekologikoa* da, hau da, ingurune fisikoari eta ingurune horren eta bertan bizi diren izakien arteko harremanei dagokien esparrua, zeinetan energiaren auziak garrantzi handia duen.

Egungo krisi ekologikoa ulertzeko elementu garrantzitsuenetako bat petrolioak eta haren deribatuek ekoizpen eta banaketa kapitalistaren prozesu guztietan duten erabateko zentraltasuna da. Hala ere, 2010ean, IEA Nazioarteko Energiaren Agentziak onartu zuen 2005-2006 aldian *ohiko petrolio gordinaren* ekoizpena maila gorenera iritsia zela ^[5]. Hau da, urteak dira energia-ekoizpenak goia jo zuela, edo *peak oil* esaten zaionera iritsi zela: petrolio-hobi berriak erritmo motelagoan aurkitzen direnez, eta ustiatzen diren heinean hobien errendimendua murriztu egiten denez (petrolio atera-tzen den heinean, hobietan geratzen dena sakabatuagoa eta eskuraezinagoa da, eta, beraz, hura ateratzeko kostu energetiko eta ekonomikoa gero eta handiagoa da, harik eta errentagarri izateari uzten dion arte), ezinbestean petrolioaren erauzketak bere maila gorena erdietsi zuen, eta ordutik etengabe ari da jaisten. Kalitatezko petrolio gordinaren eskasiaren ondorioz, dieselaren ekoizpenak urteak daramatza behera egiten ^[6], eta zenbait petrolio-enpresak Europara erregaiaren erraziamendua irits daitekeela ohartarazi dute, Sri Lankan, Argentinan eta Hegoafrikan gertatzen ari den bezala.

Aipatutako joera beherakorrari aurre egiteko, berriztagarriak ez diren beste energia iturri batzuen erabilera handitu da (ezohiko petrolioak ^[7], gas naturala, ikatza eta energia nuklearra), bai eta *bioerregai* izenez ezagutzen direnena ere (materia organikotik eratorritako erregaiak), baina iturri horiek guztiek muga edo arazo ugari dituzte ingurumen-eraginari, teknikari, alor ekonomikoari eta energia-errendimenduari dagokionez. Gainera, ia kasu guztietan arazo bera errepikatzen da sistematikoki: beren *peak* partikularrak gaingitu dituzte edo epe laburrean (urte batzuetan edo hamarkada gutxi batzuetan) erdietsiko dituztela aurreikusten da ^[8]. Azken batean, metaketa kapitalistaren azken ziklo handien oinarrian zegoen *energia merkearen aroak* agorpen-zantzu nabarmenak erakusten ditu.

Energia berriztagarriei dagokionez, azken hamarkadetan horien erabilera nabarmen handitu den arren ^[9], ageriko mugak dituzte, aztertuko ez ditugun hainbat arazo tekniko gain. Alde bate-tik, elektrizitatea sortzeko erabiltzen dira batez ere, eta aipatu bezala, energia mota honek azken energiaren kontsumoaren % 20 inguru osatzen du gaur egun. Bestalde, energia berriztagarrien aprobetxamendurako instalazio eta teknologiak (hai-ze-sorgailu eolikoak, plaka fotovoltaiakoak, zentral hidroelektrikoak, etab.) fabrikatzeko, instalatzeko, mantentzeko eta eraisteko prozesuetan erregai fosil ugari erabiltzen dira, beste lehengai eskas batzuez gain; beraz, lehengai horien eskaintza murrizten ari den une batean, aipatutako teknologien hedapen masiboa zaildu egiten da. Eta azkenik, zenbait ikertzailearen ustez, energia berriztagarriak sortze-ko gaitasun handienarekin ere ezingo litzateke gaur egun mundu mailan kontsumitzen den energia kopurua ekoizti ^[10].

Energia-iturrien auziaz gain, elkarrekin erlazio-natutako beste hainbat fenomenok ezaugarritzen dute bizi dugun *krisi ekologikoa*: klimaren asaldurak, kutsadura atmosferikoak, edateko uraren kutsadurak, itsas mailaren igoerak, hondakinen kontzentrazio handiak, ekosistemen aldakuntzak eragindako gaixotasunen ugaritzeak, lehengaien eskasiak eta ondoriozko hornidura-kateen arazoak, lur emankorren murrizketak, desertifikazioak, biodibertsitatearen galerak eta baliabide naturalen kontrolarengatik gatazka geopolitikoak, besteak beste. Azkenari dagokionez, gatazka geopolitikoak ulertzeko funtsezkoak dira lehengaien kontrola (lehengai *energetikoak* barne) eta itsas korridore estratergikoen zein gasbide eta oliobideen (gas naturala eta petrolio-produktuak barreiatzeko era-biltzen direnak, hurrenez hurren) gainera nagusitasuna ^[11]. Lehengaiak oso modu desorekatuan sakabanatuta daude Lurraren luze-zabalean, eta, beraz, horien gainera kontrola funtsezkoa da po-tentzia kapitalistentzat.

1.3. Krisi ekologikoa eta ekologismoa

Ingurumen-gaiei eta mugimendu ekologistei buruzko eztabaiden errebasoa luzeegia izango litzateke, eta, beraz, atal honetan, berregituraketa kapitalistaren egungo etapan *diskurtso ekologista* jokatzeko ari den papera baino ez dugu aztertuko. Laburbilduz, baieztatu dezakegu burgesia ekologismoaren olatu bat dela. Sakoneko arrazoia gorabehera, izan kapitalaren metaketa baimendu dezaketen ingurumen-baldintzak erreproduzitzeko arazoak gaineko kontzientzia, izan merkatu berriak irekitzeko beharra (segur aski bi elementuak daude elkarturik), ziurra dena zera da: burgesiari diskurtso hori baliagarri zaiola metaketa kapitalistaren ziklo berriko beharrezkoak diren baldintza kultural eta materialak prestatzeko.

Hemen *trantsizio ekologiko eta digitala* sartzen da jokoan, egungo krisian berregituratze kapitalista hartzen ari den zentzua ulertzeko funtsezko kontzeptua izaki. *Trantsizio* horrek garatzen ari den ekoizpen-eredu berriari egiten dio erreferentzia, zeinetara bidean aurreikusgarria den gero eta bizimodu pobregoa orokortuko dela biztanleriaren geruza zabaletan, bai energiaren arloan, bai mugikortasunean, baita beste batzuetan ere, betiere aurrerapen teknologiko eta ekologikoz mozorroturik. Norabide horretan kokatzen dira *Green New Deal* bezalako proposamen politikoak eta *Alderdi Berdeen* existentzia zentro inperialistako gizarte kapitalistetan ^[12]. Ildo beretik, 2019ko abenduaren 11n, Europako Batzordeak *Europako Itun Berdea* aurkeztu zuen, EB 2050erako «klimatikoki neutroa» izatea eta atzerriko potentziekiko mendekotasun energetikoa murriztea helburu duen ibilbide-orria. Itun honek zenbait jarraibide ezartzen ditu trantsizio ekologikoarekin lotutako Estatu kideen politikak zuzentzeko, hala nola energiaren eta garraioaren esparruetan ^[13]. Ezinbestekoa da gai honi buruzko ikuspegi globala izatea; izan ere, EBko *Berotegi Eftuktuko Gasen* (BEG) emisioen murrizketa lanaren nazioarteko banaketan oinarritzen da, zeinetan periferia kapitalistak betetzen duen funtzioa mundu mailako zabortege, gainera plotatutako lan-indarraren hornitzaile eta baliabide naturalak arpilatze-ko merkatu-nitxo izatea den. Honetan oinarritzen da *hazkunde jasangarriaren* proiektu inperialista: industria-prozesu kutsagarrienak atzerriratzean eta, ondorioz, BEG emisioak periferia kapitalistara lekualdatzean.

**Azken batean,
metaketa
kapitalistaren
azken ziklo handien
oinarrian zegoen
energia merkearen
aroak agorpen-
zantzu nabarmenak
erakusten ditu**

**Honetan oinarritzen
da hazkunde
jasangarriaren
proiektu inperialista:
industria-prozesu
kutsagarrienak
atzerriratzean
eta, ondorioz, BEG
emisioak periferia
kapitalistara
lekualdatzean**

Azaleko errebaso honekin amaituz, *Next Generation EU* europar funts ospetsuak aipatutako berregituraketaren zentzuan ulertu behar dira. Jose Castillor argi laburbildu zuen funts horien izaera aldizkari honetan ^[14]. Helburu duten Europako kapital-ehunaren modernizazioan, garrantzi berezia hartzen dute trantsizio ekologikoak eta digitalak, funtsen barruan helburu horietara bideratutako zenbatekoek erakusten duten moduan: Espainiako Estatuko Gobernuak funtsak direla eta argitaratutako Planak, adibidez, aurreikusten du 2021-2023 aldirako funtsen % 40,29 «eraldaketa berdera» bideratuko dela, eta % 29,58 «eraldaketa digitalera» ^[15].

**Pandemiak, klima-aldaketak
eta Ukrainako gerrak *batasun
sakratua* aldarrikatzeko balio
diote europar oligarkiari:
pobretzea –kausa komunez
apaindua, betiere– darabilte
kapitalisten irabazi-tasak
salbatzeko errezeta gisa**

2. ETXeko ENERGIA- HORNIDURAK ETA GARRAIOA: PROLETARIOTZA ARPILATZEKO ETA MENDERATZEKO BI BIDE

Azken hilabeteetako inflazioaren datu historikoak, neurri handi batean, etxeko energia-horniduren kostuen (elektrizitatea eta gas naturala) eta garraio pribatuari lotutako gastuen (batez ere gasolina eta diesela) ondorio dira. Horrek, aldi berean, kontsumorako ondasun gehienaren prezioen igoera orokorra ekarri du, baina bereziki elikagaietan izan da igoera nabarmena. Energia-ekoizpenari eta garraioari lotutako kostuek mundu mailako hornidura-kateko ekoizpen- eta banaketa-prozesu guztiak zeharkatzen dituztenez, horien prezioen igoerak ia merkantzia guztiei eragiten die. Testuinguru honean, klase kapitalistak, langile-klasearen biziraupenerako baliabideen gaineko kontrola duenak, gure soldataren zati handiago batez jabetzeko gaitasuna du, lan-indarraren erreproduktzioarako beharrezkoak diren ondasunen prezioak igotzen dituen aldetik. Gainera, esparru horiek funtzio garrantzitsua betetzen dute proletarioon diziplinamenduan. Izan ere, diru-sarrerarik ez baduzu, ezingo duzu energia-hornidurarik ordaindu argia pizteko edo zure etxea berotzeko, eta ezingo diezu aurre egin lan egiteko edo senide bat zaintzeko behar duzun auto baten gastuei, ohikoak diren bi adibide aipatzearren. Ondorioz, beharrezko bilakatzen da diru-sarrerak izatearen *beharrak* inposaturiko betekizun sozialak konplitzea.

Eguno egoeran, estatuek eta estatuaz gaindiko instituzioek (EB, kasu) berregituraketa kapitalistaren norabidean jarduten dute. Ikusten dugunez, zenbait erreforma ezartzen ari dira, zeinak zorpetzea handitzen duten, miseria kasurik muturrekoenak arintzeko *ogi-apurrak* eskaintzen dituzten eta hori guztia propaganda triunfalista batekin iragartzen duten, nahiz eta propaganda horrek ezin duen proletarizazio-prozesu gorakorra ezkutatu^[16]. Bitartean, inflazioari aurre egiteko «errenta-itan» berriak iragartzen dira, eta batasun interklasistarako deiak entzuten dira. Pandemiak, klima-aldaketak eta Ukrainako gerrak *batasun sakratua* aldarrikatzeko balio diote europar oligarkiari: pobretzea –kausa komunez apaindua, betiere– darabilte kapitalisten irabazi-tasak salbatzeko errezeta gisa. Horren erakusgarri dira Europako Batzordeak eta IEAk herritarrei eta gobernuei joan den apirilean egindako proposamenak, besteak beste, berogailua jaistea, automobilaren erabilera murriztea eta etxetik lan egitea^[17], eta baita *REPowerEU* plana ere, Europako Batzordeak maiatzean aurkeztua, «Errusiako erregai fosilekiko dependentzia murrizteko» helburuarekin, zeinak energiaren alorrean austeritate zein errazionamendu neurriak jasotzen dituen.

2.1. Gasaren eta elektrizitatearen fakturak

Etxeko energia-hornidurak, batez ere gas naturalarena eta elektrizitatearena, langile-klasearen oinarritzko beharrak dira gaur egun. Argia izateko, etxetresna elektrikoak eta beste aparatu batzuk funtzionarazteko, ur beroa izateko eta etxebizitza tenperatura egokian edukitzeko beharrezkoak dira, besteak beste. Eurostaten datuen arabera^[18], Europako etxeetan gehien erabiltzen diren azken energiaren iturriak gas naturala (kontsumoaren % 32,1) eta elektrizitatea (% 24,7) dira; ondoren, *energia berri>tagarriak (% 19,5) daude, nahiz eta kategoria horrekin funtsean *bioerregai solidoei* egiten dieten erreferentzia (egurra eta landare-ikatz, batez ere); hurrengoak petroliotik eratorritako produktuak (% 11,6) leudeke, hala nola butano-gasa, gas propanoa eta diesela; eta azkenik, beste iturri batzuk (% 12,1). Hurrengo paragrafoetan energia-merkatuari buruz azalduko direnak, berez, baliozkoak dira aipatutako iturri guztientzako, baina gas naturalean eta elektrizitatean zentratuko gara, egungo testuinguruan duten garrantziagatik.*

Azken hilabeteetan, gas naturalaren eta elektrizitatearen fakturetan aurrekaririk gabeko garestitzea ikusi dugu; hain zuzen, 2021eko azken hilabeteetatik aurrera Europako prezioak balio historiko maximoetara iritsi dira. Horri energia-merkatuen opakutasuna eta lerroburu partzial eta alderdikoiak gehitu behar zaizkio, fenomeno hau ongi ulertzea oztokatzen dutenak. Nazioarteko energia-merkatuen funtzionamendua artikulu honen irismenetik kanpo geratzen den gaia bada ere, horiek ulertzen laguntzen duten zenbait elementu esanguratsuren errepaso labur bat egingo dugu. Europar Batasunean eta, bereziki, Espainiako Estatuan jarriko dugu arreta^[19].

Gai hau ulertzeko elementu garrantzitsua da azken hamarkadetan garatutako ekonomia globalaren finantziazioa, energia-merkatuetan ere eragina izan duena^[20]. Horrek esan nahi du finantza-jardueretan diharduten erakundeek dutela, azken buruan, energia-baliabide gehienaren gaineko kontrola, finantza-aktibo gisa. Energia-merkatuen finantzarizazioaren bi adibide argi ondorengoak dira: 1) gas naturalaren eta elektrizitatearen *etorkizuneko merkatuen* existentzia: etorkizunera begirako kontratuen salerosketak egiten dira data jakin batean baliabide horiek eskain ditzaketen irabazien aurreikuspenetan oinarrituta, eta era horretan finantza-aktiboen funtzioa betetzen dute, eta 2) *berrotegi-efektuko gasen emisioen merkatuak*: *emisio-eskubideen* arteko salerosketa egiten da, hau da, gas horien tona kopuru jakin bat isurtzeko eskubidea hainbat herrialdeetako burgesien arteko finantza-trantsakzioen objektu da^[21].

Energia-merkatuen finantzarizazioarekin loturanean, 1990eko hamarkadaz geroztik EBk herrialde kideetako elektrizitatearen eta gasaren merkatuen liberalizaziorako eta interkonexiorako politikak abiarazi ditu; izan ere, lehenago, oro har, estatuek nabarmen esku hartzen zuten merkatu horietan ^[22]. EBn, beraz, *elektrizitatearen eta gas naturalaren barne-merkatu* bat garatuz joan da, nahiz eta estatu bakoitzak marko legal propioa garatzen duen bere barne-merkatu berezia arautzeko EBk ezartzen dituen arau orokorren arabera. Horrela, ondasun horietako bakoitzaren prezioak estatuetan finkatzen dira (edo merkatua partekatzen duten estatu gutxi batzuen artean), nazioarteko merkatuetako prezioetan oinarrituta. Lehen produkzio-, merkaturatze-, garraio- eta banaketa-funtzioak *egitura bertikal* batean bilduta egotea zen ohikoena, baina sektorearen liberalizazioak jarduera horiek bereiztea eta horietako gehienak merkatuaren lehian arabera funtzionaraztea ekarri zuen.

Gasaren eta elektrizitatearen merkatuen barne-funtzionamenduan arreta jarritz, lehenik eta behin aipatu behar da bi kasuetan *handizkako merkatua* eta *txikizkako merkatua* existitzen direla. Handizkako merkatuan, oro har, ondasun horien saltzaileek (ekoizleak, inportatzaileak, finantza-eragileak edo beste bitartekari batzuk) erosleei saltzen dizkiete (enpresa merkaturatzaileak, bitarteko eragileak edota zuzenean erosten duten industria-konsumitzaile handiak); txikizkako merkatuan, berriz, merkaturatzaileek azken kontsumitzaileei saltzen diete produktua. Handizkako merkatuari dagokionez, merkatu-multzo konplexua da, eta, bertan, produktu horien transakzioa hainbat epetan egiten da: epe luzeko kontratuetatik (lehenago aipatutako *etorkizuneko merkatuen* kasua) salerosketa produktua eskuratzen den egun berean egiten den eguneroko merkatuetara, besteak beste.

Hona iritsita, eguneroko merkatuen enkanteek paper garrantzitsua jokatzen dute. Espainiako Estatuaren kasuan, Iberiar Penintsularen mailan antolatzen dira enkanteok: gasari dagokionez, MIBGAS (*Gasaren Iberiar Merkatua*) enpresa da enkantearen arduraduna (*operadorea*), eta elektrizitatearen kasuan, OMIE (*Elektrizitatearen Iberiar Merkatuaren Operadorea*) enpresak betetzen du funtzio hori. Hor finkatzen dira gasaren eta elektrizitatearen eguneko prezioak, eta *elektrizitatearen eguneroko handizkako merkatuaren* enkanteak duen funtzionamenduak azaltzen du, hein batean, azken urteko fakturen igoera:

1 Elektrizitate-saltzaileek erabilitako ekoizpen-teknologiaren arabera (energia berriztagarriko teknologiak, energia nuklearrekoak, zentral termiko konbentzionalak eta ziklo konbinatukoak, etab.), beren prezioak eskaintzen dituzte enkantean ordutarte bakoitzerako, eta erosleek erosteko eskaintzak egiten dituzte.

2 Ordu-tarte bakoitzean, energia-eskaria energia merkeenekin betetzen da (gaur egun energia berriztagarriak eta energia nuklearra dira), baina horiekin ez bada nahikoa energia-eskaria osoki asetzeko, prezioaren arabera ordenatutako hurrengo energietara igarotzen da.

3 Energia-eskaria betetzeko beharrezkoa den azken eskaintza gainerako energien prezioa finkatzen duena da, megawatt orduko eurotan neurtuta (€/MWh).

Funtzionatzeko modu horri *sistema marjinalista* deritzen, eta bera da EBn indarrean dagoena. Haren erabilera justifikatzeko, ekoizpen-kostu merkeagoak dituzten teknologiak sustatzen dituen sistema dela argudiatu ohi da, eta, horrela, energia berriztagarrien garapena eragiten duela. Teknologia berriztagarriek eta nuklearrek eskaria betetzen ez dituzten tarteak normalean ziklo konbinatuko zentral termikoek (gas naturala erregai gisa erabiltzen dutenak) betetzen dituzte, eta horrek, nazioarteko merkatuetan gasaren prezioa izugarri garestitu den egoera batean, energia «merke» guztiak oso garestiak direnen prezioan saltzea eragin du. Horatik etorri dira elektrizitate-enpresei egindako kritikak, ustez *zilegitasunik gabe* eskuratutako «zerutik eroritako etekinen» harira (hau da, ekoizpen-kostu merkeena duen elektrizitatea garestienaren prezioan saltzeagatik lortutako mozkinak), eskuratzen dituzten gainerako etekinak *zilegi* balira bezala.

Egiazki, Europako handizkako merkatuen eredu dela eta, sistema marjinalistaren alternatiba posibleek apenas aldatuko lituzkete elektrizitatearen prezioen gorabeherak, merkatuan parte hartzen duten enpresa ekoizle eta merkaturatzaileek beste era batera jokatuko luketelako beren irabaziei eusten dietela ziurtatzeko ^[23]. Kontuan izan behar da, halaber, 2021eko uztailera arte, Espainiako Estatuan eguneroko enkante horren gehieneko prezioa 180 €/MWh-koa zela, eta hilabete hartan, EBk hala aginduta, muga hori 3000 €/MWh-ra igo zela ^[24]. Hain zuzen ere, 2021eko urritik aurrera elektrizitatearen handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 180 eurotik gorakoa izan da, eta martxoan ordu-tarte baterako 700 €/MWh-ko errekor historikora iritsi zen.

Duela gutxi, Espainiako Estatuko gobernuak zalaparta handiz iragarritako neurri bat onartu du ^[25] gas naturalak elektrizitatearen handizkako merkatuaren prezioan 12 hilabetez izango duen eragina «mugatzeko». *Doikuntza-mekanismo* horren arabera, 40 €/MWh-ko hasierako erreferentziako prezioa ezartzen zaio gasari, eta, ondoren, progresiboki handituz doa 70 €/MWh-ra iritsi arte; horrela, enkantean murriztu egiten da gas naturala erabiltzen duten zentraleko ekoiztiko elektrizitatearen prezioaren eragina. Hala ere, alde batetik, gas-zentralek kontsumitzaileengan ezarriko dituzte jasoko ez duten zatiaren kostuak, eta, bestetik, aurreikuspen ofizialek ere ^[26] zenbatesten dute handizkako merkatuaren enkantearen batez besteko prezioa 130 €/MWh ingurukoa izango dela neurri horrekin; hori egungo prezioa baino merkeagoa den arren, 2021eko uda aurreko serie historiko osoan izandako batez besteko prezioak baino askoz ere garestiagoa da. Aipatutako neurria onartu aurreko hilabetea (2022ko apirila) erreferentziazat hartuta, handizkako merkatuaren batez besteko prezioa 191,51 €/MWh-koa izan zen; urtebete lehenago (2021eko apirila), berriz, batez besteko prezioa 65,02 €/MWh-koa izan zen. Sozialdemokraten euforia gorabehera, ia % 200 igo den zerbait % 30 jaistea ez dirudi oso onuragarria denik langile klasearen bizi-baldintzen ikuspegitik.

Bestalde, azken urtean gas naturalaren prezioek izan duten igoera ikaragarria nazioarteko burgesiak trantsizio ekologikoaren arloan hartutako akordioen ondorio da, neurri handi batean. Alde batetik, *deskarbonizaziorako* eskakizunen ondorioz, Asiako hainbat herrialdek, tartean Txinak, nabarmen handitu dute gas naturalaren eskaria, erregai horrek beste erregai fosil batzuek baino CO₂ gutxiago isurtzen baitu. Horrek gasaren nazioarteko merkatuetan prezioak igotzea ekarri du. Gainera, CO₂ emisioen merkatuetako finantza-espekulazioak eta norabide berean ezartzea aurreikusten diren muga-zergek are gehiago garestitzen dute erregai fosilen erabilera, gasa barne.

Txikizkako merkatuan, energia azken kontsumitzaileei eramateko, enpresa merkaturatzaileek garraio- eta banaketa-sareak erabiltzen dituzte (eta biltegiatze-instalazioak, gas naturalaren kasuan). Horretarako, bidesari batzuez gain, ordaindu beharreko zenbait kargu ere ezartzen zaizkie, sistemaren beste gastu batzuk ordaintzeko. Bidesarien eta gainerako karguen prezioak Administrazioak finkatzen ditu, eta merkaturatzaileek azken kontsumitzaileei ordainarazten dizkiete. Era honetan, kontsumitzaileen faktura energiaren kostuak, bidesariek, karguek eta zergek osatzen dute. Handizkako merkatuko prezioen igoerek eragin zuzena dute energiaren kostuaren zatian, eta gainerako kontzeptuak estatu bakoitzeko gobernuak arautzen ditu.

Bestalde, Espainiako Estatuko txikizkako merkatuaren barruan *merkatu libre*a eta *merkatu arautua* bereizten dira. Bietan berdin funtzionatzen dute fakturako bidesarien, karguen eta zergen atalek, baina energia-kontsumoarekin lotutakoak ez. Merkatu librean, kontsumitzaileek gasaren edo elektrizitatearen hornidura-kontratua adosten dute enpresa merkaturatzaileekin aldi jakin baterako, eta aldi horretan energia-kontsumoaren kostua finkatzen da. Merkatu arautuan, aldiz, energiaren kostuari dagokion fakturaren zatia (kilowatt orduko prezioa) handizkako merkatuko prezioen arabera finkatzen da. Elektrizitatearen kasuan, tarifa horri *Kontsumitzaile Txikiaren Borondatezko Prezioa* (KTBP) deitzen zaio, eta elektrizitatearen prezio bat ezartzen da eguneko ordu bakoitzerako, lehen azal dutako enkantean finkatutakoa. Gasari dagokionez, merkatu arautuaren fakturari *Azken Baliabidearen Tarifa* (ABT) deitzen zaio, eta horren prezioa gobernuak finkatzen du hiru hilean behin, handizkako merkatuko prezioen arabera.



Beraz, azken urtean ikusten ari garen argindarraren igoera ikaragarriari buruzko lerroburuek elektrizitatearen handizkako merkatuaren enkan-tearen gehieneko prezioei egiten diete erreferentzia, eta horiek, neurri handi batean gas naturalaren handizkako merkatuko prezioen ondorio dira. Prezio horiek zuzenean eragiten diete merkatu arautuko tarifa duten erabiltzaileei, eta zeharka merkatu librean dauden pertsonai; izan ere, merkaturatzaileek kontratuak berrikusten dituzte amaitzen direnean (normalean urtebetekoak dira), eta handizkako merkaturak gorantz doanean prezioak igotzen dituzte.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) datuen arabera, 2020. urtearen amaieran hornidura elektrikoaren % 63,3 eta gas-horniduren % 80,1 merkatu librean zeuden, eta merkatu arautuan, berriz, % 36,7 eta % 19,9, hurrenez hurren ^[27]. Nolanahi ere, merkatu horien opakutasunaren eta merkaturatzaileek erabiltzen dituzten praktiken erakusgarri, elkarbizitza-unitateen % 67,3 k ez zekien, gasaren kasuan, ea merkatu arautuan edo merkatu librean zegoen, eta elektrizitateari dagokionez % 59,5ek ^[28].

Azpiraratzekoa da Espainiako Estatu-merkatu arautuan *erreferentziako merkaturatzaileak* deiturikoek soilik sal ditzaketela elektrizitatea eta gasa, hau da, gobernuak merkatu horretan jarduteko baimendutako enpresek. Merkatu hori hiru enpresa-taldek kontrolatzen dute gehienbat: Iberdrolak, Endesak eta Naturgyk. Horien artean, gasaren eta elektrizitatearen merkatu arautuen % 90 baino gehiago kontrolatzen dute ^[29]. Haien atzetik erreferentziako enpresa merkaturatzaileak izatea baimentzen zaien beste enpresa-talde txikiago batzuk daude: EDP, Repsol, CHC eta Gaselec. Merkatu librean, egoera antzekoa da: lehen aipatutako hiru enpresa-taldek kontrolatzen dute merkaturaren zatirik handiena (gasaren merkatuaren % 77,4 eta elektrizitatearen merkatuaren % 72,7, 2020ko datuen arabera ^[30]), baina, hor, enpresa merkaturatzaile txiki ugari daude merkaturaren beren tartea lortzeko lehian. Kontuan hartu behar da, halaber, gasaren eta elektrizitatearen hiru enpresa-talde handiek energia merkaturatzeko, ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko enpresak dituztela, baita beste esparru batzuetako negozioak ere. Hirurek irabaziak handitu zituzten 2021ean, gasaren eta elektrizitatearen fakturen errekorrek markatutako urtea, inondik ere ^[31]. Bestalde, Espainiako Estatu-ko gas- eta elektrizitate-sistemen kudeaketa eta garraioa ere enpresa-taldeen esku daude, zeintzuek, kasu honetan bai, monopolioa osatzen duten beren arloetan: *Enagás* eta *Red Eléctrica de España*.


Ikusi dugunez, estatuek nabarmen araututako merkatu batzuetatik liberalizatutako beste batzuetara aldatzeak, EBtik *estatuaren monopolioarekin amaitzeko* bide gisa saldu zen horrek (enpresa-oligopoliora igarotzeko, azken batean), ez zuen funtsezkoena aldatu: baliabide energetikoen gaineko kontrola kapitalista dela, eta ondorioz, proletariooi galarazitako baliabideak direla, diru-sarrerak behar baititugu horiek kontsumitzeko. Txanponaren beste aldean da pobrezia areagotzen ari dela, eta bereziki, *pobrezia energetikoa* deritzona. Fenomenoak osotasunaren baitan ulertzea komeni den arren, pobrezia energetikoa, zehazki, bizi-maila egokia mantentzeko behar adina ondasun energetiko (zentzu kuantitatibo eta kualitatiboan) izateko ezintasunari dagokio. Definitzeko zaila den fenomeno denez, datuak tentuz hartu behar dira ^[32]. Adibide gisa, Cañada Real deituriko Madrilgo auzoaren kasua aipa daiteke, non 4.000 pertsona inguru argindarrrik gabe dauden 2020ko urritik; era berean, aipagarria da munduan ehunka milioi lagunek ez duela elektrizitaterik eta bestelako energia-hornidurarik, eta horri lotutako hildakoen kopurua izugarria dela ^[33].

Ikusi dugunez, estatuak nabarmen araututako merkatu batzuetatik liberalizatutako beste batzuetara aldatzeak, EBtik estatuaren *monopolioarekin amaitzeko* bide gisa saldu zen horrek (enpresa-oligopoliora igarotzeko, azken batean), ez zuen funtsezkoena aldatu: baliabide energetikoen gaineko kontrola kapitalista dela, eta ondorioz, proletariooi galarazitako baliabideak direla, diru-sarrerak behar baititugu horiek kontsumitzeko

2.2. Zer norabide daraman garraioak


Garapen kapitalistaren historia ezin da bereizi garraioaren garapenetik. Kapitalismoaren hasierako bultzadak, adibidez, lotura estua du trenbidearen hedapenarekin. Era berean, hirien konfigurazioak berak eta garraiorako azpiegituraren garapenak agerian uzten du askotan ahaztuta dagoen errealitate bat: kapitalaren baitako espazioa kapitalaren espazioa dela beti.

Merkantziak saldu arte horiek *gordetzen* duten balioa ez denez *gauzatzen*, garraioaren sektorea estrategikoa da. Garrantzi hori handiagoa da kontuan hartuta azken hamarkadetan kapitalak deslokalizazio-prozesu masiboak gauzatu dituela, hainbat salgairen ekoizpena fase ugartan segmentatu duela eta fase horiek sakabanatu egin dituela, etekinak maximizatzeko helburuz. Horrek, paradoxikoki, handitu egin du balizko akats baten aurrean hornikuntza-kateek duten zaurgarritasuna, eta ondorioz, proletariotzaren borrokarako ortzimuga berriak zabaltzen ditu, dagoeneko ikusi dugunez. Hala ere, askotan, zaurgarritasun hori agerian geratzen da proletariotzak esku hartu beharrik gabe: iaz *Ever Given* ontziak Suezko Kanalean hondoa jo izanak itsas trafikoaren funtsezko arteria bat blokeatzea ekarri zuen (urteko merkataritza globalaren % 10 inguru handik igarotzen da); Islandian sumendi bat erupzionatzeak aire-garraioaren behar bezalako zirkulazioa eragozten du, eta European automobil-fabriken jarduna etetea dakar, mikrotxip faltaren eraginez.



Maila ideologikoan, automobila kontrolerako gailu eraginkorra da: jabetza hedatzen du langile-klaseko sektoreen artean, eta era horretan desklasamendua bultzatu (luxuzko ondasuna izatetik langile arruntaren kontsumorako objektu izatera igaro da autoa); askatasun-sentsazio faltsua sortzen du denbora-tarte laburretan distantzia handiak egiteko aukeragatik eta lehiakortasuna eta indibidualismoa sustatzen ditu, norbanakoaren garraio-modua den heinean

Merkantzien ekoizpenarekin eta salmentarekin lotutako garraioaz gain (esplotaziora bideratzen den lan-indarraren garraioa barne), gaur egungo metaketa ereduaren baitan gizabanakoen kontsumorako garraioa nabarmentzen da. Horren adibiderik nabarmenena masen turismo-ereduan ikus daiteke, nahiz eta aurreikusgarria den laster gainbeheran murgilduko dela, proletarizazio-prozesu geldiezinaren eta motordun garraioarekin lotutako kostuen igoeraren aurrean. Edonola ere, garraioaren alderdi hori ez da ebaluatu behar proletariotzaren esplotatukondiziotik bereizita; izan ere, eguneroko monotoniarekin eta horrek sortzen duen gogaikarritasunarekin apurtzeko funtzionala da, eta, ondorioz, *indarberritzeko* bide bat da, izan lantokian esplotazio-ziklo berri baterako, kapitalaren hezkuntza instituzioetan idiotizatzen jarraitzeko edo langabezia kronikoko egoera baten aurreko inpotentziari aurre egiteko.



Zentzu horretan, automobila da, beharbada, langile-klaseari lotutako garraio biderik ikonikoena, bai bere pisu kulturalagatik, bai eragin dituen inplikazio politiko eta ekonomikoengatik. Haren hedapenak masa-kontsumoaren eta erdigune inperialistako bake sozial erlatiboaren garaia inauguratu zuen, eta espazioari dagokionez kapitalari erabat subsumitzea ekarri zuen: hiria aparatu horren neurritik pentsatzen da, eta haren bidez, proletariotza kaletik kanporatzen da. Maila ideologikoan, automobila kontrolerako gailu eraginkorra da: jabetza hedatzen du langile-klaseko sektoreen artean, eta era horretan desklasamendua bultzatu (luxuzko ondasuna izatek langile arruntaren kontsumorako objektu izatera igaro da autoa); askatasun-sentsazio faltsua sortzen du denbora-tarte laburretan distantzia handiak egiteko aukeragatik eta lehiakortasuna eta indibidualismoa sustatzen ditu, norbanakoaren garraio-modua den heinean ^[34]. Alor ekonomikoan diziplinamendu elementu gisa jarduten du; izan ere, autoa, aseguru edota gasolina ordaindu behar dira, baina autorik ez izateak lanpostua lortzeko ezintasuna ekar dezake. Bukatzeko azpimarratzekoa da egunero eragiten dituela hildakoak, zeinak agerian uzten duen gizarte kapitalista gidatzen duen *irrazionaltasuna*.


Europar, masa-automobilismoaren hedapena Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen, baina hori atzeratu egin zen Espainiako Estatuan, Gerra Zibilaren eraginez. 1950erako 100-300 mila automobil zeuden Espainiako Estatuan ^[35], baina 1957tik aurrera, *Seat 600* modeloaren masa-ekoizpenarekin batera, egoera hori aldatu egin zen. 1965erako, Espainiako Estatuako autoen kopurua milioitik gorakoa izan zen. Nolanahi ere, errepide-sare garatuek mesede egiten diote masa-automobilismoari, eta 1970erako, Espainiako Estatuak 203 kilometro baino ez zituen edukiera handiko bideetan (autobiak eta autobideak), eta 139.000 kilometro errepide arruntetan ^[36]. Horregatik, 1984an, PSOEk 1984-1991 *Aldirako Errepideen Plan Orokorra* abiarazi zuen, errepide-sarea modernizatzeko asmoz.

Edukiera handiko bideen kilometro kopuru txikiak, beste faktore batzuekin batera, automobil kopuruaren hazkundeari kalte egin ahal izan zion, nahiz eta ez zuen geldiarazi, inondik ere: 1985erako, Espainiako Estatuak 3.000 kilometro inguru zituen gaitasun handiko bideetan, eta 9,5 milioi auto inguru ^[37]. 2003an, edukiera handiko bideen kilometro-kopurua laukoiztu baino gehiago egin zen 1985 urtearen aldean, eta 12.000 kilometroko luzera gainditu zuen; automobil kopurua, aldiz, ia 19 milioikoa izatera igaro zen. Gaur egun autobide

eta autobien luzera 17.000 kilometrokoa da (2018ko datuak), eta 25 milioi auto inguru daude estatu mailan; errepide arruntek, berriz, 149.000 kilometro hartzen dituzte. Hala eta guztiz ere, edukiera handiko bideen gorakada handi horren arrazoa (ziur aski erabakigarriagoa izan zena) Espainiako Estatuako kapitalak merkantzien garraioa hobetzeko zuen beharra izan zen, baita Europako gainerako lurraldeekiko lotura hobetzeko beharra ere, frantziar Estatuarekin trenbide-lotura ahula baitzuen (eta oraindik ere halakoa da).

Era horretan, edukiera handiko errepideen hazkunde bat dator *Renferen Kontratu-Programaren* bidez suspertutako trenbide-garraioaren murrizketa bizkorrekin; izan ere, haren ondorioz, trenbide-sarearen ia % 22,5 desegin zen ^[38]. Ondorioz, 1980ean salgaien garraioa 47 milioi tonakoa izanik, 2007rako soilik 31 milioi tonakoa izatera igaro zen ^[39], eta bidaiarien trafikoa (km-ko bidaiari kopuruan neurtua) 1985ean iritsi zen gorenera; orduetik aurrera nabarmen murriztu da (*AVE* Espainiako abiadura handiko trenen bidaiarien kopurua berriro ere suspertzen ari da, nahiz eta bestelako ibilbideak egiten dituen) ^[40]. Azken batean, errepide-sarearen garapenak, ondorio zuzen gisa izan zuen ohiko trenbide-sarearen utzikeria eta hondatzea, eta, kasu askotan, erabateko abandonua, batez ere udalerri txikietan, eta horrekiko paraleloan gertatu zen. Horrek, neurri handi batean, murriztu egin zituen ibilgailu pribatuaz bestelako mugikortasun aukerak leku horietan. Era berean, ordutik aurrera *Abiadura Handiko Trenaren* (AHT) inguruan inbertsio ikaragarriak egin dira trenbide-azpiegiturretan, batez ere Espainiako Estatuako metropoli handiak lotzeko. Horixe da garraioak gizarte kapitalistan duen eragin nagusienetako bat: azken buruan, sektore batzuk besteen aurrean pribilegiatzen ditu. Horrela, esaterako, haren garapenak, distantziak murriztea ahalbidetu behar lukeen horrek, azkenean horiek handitzea dakar, dela ibilbidearen luzera handituta, proletariotza periferiara kanporatzen denean; dela bidea egiteko denbora luzatuta, auto-ilarak edo matxurak direla eta; dela eremu askotan garraiorako aukera zuzenean ezabatuta.

Garraio ereduaren etorkizunerako perspektibak zalantzarazkoak dira erabat. Berregituraketa kapitalistaren garai batean gaude sarturik, hau da, metatze-ziklo baten amaieraren eta ziklo berri baten hasieraren arteko loturan, eta garraioa ez da horrekiko bereizia. Eredu honek, gainera, badu berezitasun bat: erregai fosiletan oinarritzen da ia osoki, aipatu den bezala, eskaintza murrizten ari den une honetan. Horrela, Espainiako Estatuan, europar



Horixe da garraioak gizarte kapitalistan duen eragin nagusienetako bat: azken buruan, sektore batzuk besteen aurrean pribilegiatzen ditu. Horrela, esaterako, haren garapenak, distantziak murriztea ahalbidetu behar lukeen horrek, azkenean horiek handitzea dakar, dela ibilbidearen luzera handituta, proletariotza periferiara kanporatzen denean; dela bidea egiteko denbora luzatuta, auto-ilarak edo matxurak direla eta; dela eremu askotan garraiorako aukera zuzenean ezabatuta

funtsen bidez garraioaren deskarbonizazioan aurrera egitea planteatzen da (aipatzekoa da 2035erako konbustio bidezko ibilgailuen ekoizpena debekatzea aurreikusten dela). Horretarako, ibilgailu elektrifikatuen flota indartzea, 50.000 biztanle edo gehiagoko hirietan *Isurpen Gutxiko Eremuak* (IGE) ezartzea (kasu jakin batzuetan 20.000 biztanle edo gehiagoko hirietan), hiri- eta metropoli-garraioan inbertitzea eta *mugikortasun aktiboa* (bizikletaz eta oinez) sustatzea bilatzen da. Modu berean, mahai gainean dago «erabiltzen duenak ordaintzen du» eta «kutsatzen duenak ordaintzen du» printzipioen arabera neurriak ezartzea estatuko bide-sareetan, horien mantentze-lanak finantzatzeko xedearrekin, EBren zuzentarauekin bat.

Neurri eta aldaketa horiek aurrera eramateko, lehenik eta behin, 2.916 milioi euro bideratuko dira *Isurpen Gutxiko Eremuetara* eta hiri-garraioaren eraldaketara; horrek, besteak beste, antzinako flota txatar bihurtzea, flota hori berritzea eta erregaia hornitzea edo kargatzeko puntuen finantzaketa barnebiltzen ditu. Bigarrenik, 2.000 milioi euro mobilizatu nahi dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituraren hedapenerako, ibilgailu alternatiboaren kopurua handitzeko (elektrikoak, hidrogenozkoak, etab.) edo hidrogeno berdearen eta ibilgailu horien kargaren alorretan berrikuntza sustatzeko. Horren bitartez, 2020an 5.600 karga-puntu publiko izatetik 100.000 izatera iritsi nahi da (gaur egun kopuru txikia izatea oztopo da ibilgailu elektrikoak ugaritzeko), eta 2023rako 250.000 ibilgailu elektrikorako, eta horretarako, horien erosketaren zati bat ordaintzeko diru-laguntzak emango dituzte.

Aipatutako bideari jarraikiz, kargatzeko azpiegituraren garapenari eta ibilgailuen erosketetara bideratutako diru-laguntzei esker, ibilgailu elektriko eta alternatiboaren gutxieneko merkatu bat ezartzeko eta bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko oinarriak ezarri ahalko dira. Inbertsio horien helburua da karga-puntuekin lotutako industriari laguntzea (azpiegitura horren % 90 estatu mailako fabrikazioa da), eta, era berean, Espainiako Estatuak mugikortasun elektrikoarekin duen konpromisoa erakusten ahalegintzea, eredu elektriko berrien fabrikazioarekin lotutako inbertsioak jasotzen saiatzeko; izan ere, auzi hau funtsezkoa da Espainiako Estatuan, BPGaren % 10 eta enpleguaren % 9 automobilgintzaren sektorearen mende baitaude. Azkenik, trenbide-sareko *Aldiriak* zerbitzuaren «kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko» 1.620 milioi euro erabiliko dira, haren garrantzi estrategikoa dela eta (dokumentuaren beraren arabera, bidaiari-


ren trenbideko garraioaren % 89,2 modalitate horri zor zaio).

Azaldutakoan eta egungo egoeran oinarrituta, esan daiteke ibilgailu pribatuak funtsezko pisua duen garraio-ereduarekin amaitzea lortu nahi dela. «Ibilgailu pribatuaren diktadurarekin» amaitzea, Espainiako Estatuko Garraio ministroaren hitzetan, eta hiri-garraio horretarako gako izatea. Horretarako, ez da beharrezkoa ibilgailu pribatuaren debeku zuzena ezartzea, eta hori argi geratzen da egungo dinamikari so eginez. Auto bat eduki nahi izatea gauza bat delako, baina hura ordaindu eta mantendu ahal izatea beste kontu bat. Horrela, azken bi urteotan lehen eta bigarren eskuko ibilgailuen garestitzea ikusten ari gara, hainbat faktorek eragindakoa (erdieroaleen krisia, lehengaien garestitzea, etab.). Bestalde, nabarmentzekoa da auto-fabrikatzaileak prezio altueneko modeloen ekoizpenean zentratzen ari direla, zeinek irabazi handiagoak ematen dizkieten eta sektore proletarizatuenentzat ordaindu ezinezkoak duten. Aurrekoarekin lotuta, turismo berrien eskaintza murriztu izanak automobil-parkea zahartzea ekarri du, eta, beraz, 2023an ezarriko diren *Isurpen Gutxiko Eremuetan* kutsaduraren arloko eskakizunak betetzea ezinezkoa izango da gero eta ibilgailu gehiagorentzat ^[41]. Era berean, erregaia izugarri garesti daude: 2019ko 25. astean 95 *gasolinaren* eta dieselaren prezioa litroko 1,306 eta 1,199 eurokoa zen, hurrenez hurren; 2022ko data bererako, berriz, 95 *gasolina* litroa 2,117 eurotara iritsi da eta dieselaren litroko prezioa 2,003 eurotara iritsi da; are, zenbait adituk diote *gasolinaren* prezioak uda honetan 3 euroak gaindi ditzakeela ^[42]. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuko gobernuak autobide eta autobia guztietan bidesariak ezartzeko duen asmoa, eta ordainketa-sistema errepide guztietara zabaltzeko aukera ^[43]; *matrikulazio-zerbaren* garestitzea ibilgailuaren kutsaduraren arabera, eta *zerga* berriak ezartzeko aukera (*CO2 emisioen gaineko zerga*, esaterako, Katalunian jada indarrean dago); eta aparkatzeko eremu mugatuak gero eta auzo eta herri gehiagotara zabaltzea. Azken batean, horren ondorioa da gero eta gehiago ordaindu beharko dela gehienetan beharrezko dugun ibilgailu bat erabili eta aparkatzeagatik.

Nolanahi ere, argi dago auto baten jabetza eskuratzeko eta harekin zirkulatzea askoz ere garestiagoa izango dela biztanleriaren zati handi batentzat, ez bada ezinezkoa. Pentsa liteke automobil-parke osoa elektrifikatu daitekeela, eta horrela ingurumen-eskakizunak bete, baina horrek arazo larriak jartzen ditu mahai gainean: hasteko, kargarako azpiegitura

behar da, eta halakorik ez da gaur-gaurkoz (eta ezin da existitu gaur egungo automobil kopuru osoari erantzuteko), eta, era berean, ibilgailu elektrikoen prezioa Europan errekuntza bidezko ibilgailuena baino handiagoa da oraindik, soldata errealak murrizten ari diren une batean. Horretaz gain, ibilgailu elektrikoen fabrikaziorako litioaren eta nikela-ren moduko lehengai estrategiko eta urriak behar dira, eta horiek herrialde gutxi batzuetan baino ez daude, eta inoiz baino garestiago, beste eragozpen batzuk ez aipatzearren.

Hortaz, hipotesi gisa planteatu dezakegu bidaiarien garraio-eredua norabide bikoitzean bideratzen ari dela: alde batetik, automobilerako sarbidea burgesiar eta egungo krisitik onik ateratu litezkeen klase ertaineko sektoreei mugatzeko bidean gara, eta, bestetik, proletariotza garraio kolektibo eta aktibora *kondenatzekoan*. Aurreikuspen horien aurrean, tentuz hartu behar da hiri- eta metropoli-garraioa modernizatzeari eta sustatzeari buruzko diskurtsoa. Gaurkotasun handiko adibidea dugu 2020ko konfinamenduan eta ondorengo hilabeteetan: komunikabideek eta politikari profesiona-lek hiri-garraio seguruaren ilusioa zabaldu zuten birusaren transmisioa ekiditeko, baina behar ekonomikoa gailendu zen eta zerbitzuak murriztu eta okertu egin ziren, eta martxan jarraitu zutenak masifikatu egin ziren. Etorkizuna bestelakoa izango dela baieztatzeko moduko zantzurik ez dago; beraz, ziurrenik, proletariotzari bideratutako garraioan eginiko inbertsioa soldatapeko esplotazioa mantentzeko behar dena izango da, ez handiagoa. Atzerapenak, matxurek, askotan neurritz kanpokoak diren prezioek edo gure denboraren zati handi bat galtzeak eguneroko bizitzaren parte izaten jarraituko dute. Eta proletarioei zuzendutako garraiobi-deak eraginkorrak, seguruak eta azkarrak izango balira ere, ez lukete egun duten funtzionaltasuna aldatuko: ez da bereziki garrantzitsua egunero esplotatua izatera joateko modua autoa den edo trenaren. Ikusteko dagoena da ea zein epetan gauzatuko den azaldutako eredu horretarako trantsizioa, eta nola; litekeena da hiri handietan dagoeneko proletariotzaren sektore batzuei ibilgailu pribatua (edo haren erabilera) ukatzea; beste sektore batzuentzat, berriz, betebeharra izango da berehalako etorkizunean autoari eustea, zenbait arrazoi direla medio, eta, ondorioz, areagotu egingo da haien pobretzea.



Hipotesi gisa planteatu dezakegu bidaiarien garraio-eredua norabide bikoitzean bideratzen ari dela: alde batetik, automobilerako sarbidea burgesiar eta egungo krisitik onik ateratu litezkeen klase ertaineko sektoreei mugatzeko bidean gara, eta, bestetik, proletariotza garraio kolektibo eta aktibora *kondenatzekoan*

3. ONDORIOAK

Artikuluaz azaldutako guztiagatik, zenbait go-goeta azpimarratuko ditugu, eta beste posizio politiko batzuen mugak aztertuko ditugu. Alde bate-tik, baliabide naturalen, energia-ekoizpenerako eta banaketarako baliabideen eta garraio-bitarteko-koen gaineko kontrol kapitalistak determinatzen du gure desjabetu izaera hornidura energetikoaren eta mugikortasunaren esparruetan. Ere horiek bide aproposak dira proletariotza arpilatzeko: gares-titzearen bidez, tasa eta zerga berriak ezarri eta zenbait zerbitzuren kalitatea okertuz, gure soldata errealek devaluatzen dira. Beraz, kontrol kapitalis-ta da borrokatu behar duguna, izan haren bertsio pribatu-enpresarialean, zein haren bertsio burokrati-ko-estatalean. Horretarako, progresiboki areagotu behar dugu kontrol horri kontrajartzen zaion es-parru eta prozesu sozial guztien gaineko kontrol sozialista, botere sozialista eraikitze-ko estrategia batean oinarritutakoa. Soilik honela lortu ahalko da hornidura energetikoak eta mugikortasunerako baliabideak doakoak, unibertsalak eta kalitatezkoak izatea.

Bestalde, azken hamarkadetan *diskurtso ekolo-gistak* gero eta garrantzi handiagoa lortu du ezta-baida politikoan. Mugimendu ekologisten hasie-rako bultzada hainbat planteamendu partzialetan sakabanatuta geratu da; funtsean, Burgesiaren Alderdiaren espektro osoak asimilatu ditu. Hau da, programa ekologistak Kapitala modernizatzeko ba-lío izan du azken hamarkadetan. *Kapitalismo ber-dearen* eta *hazkuntza jasangarriaren* apologetatik (gaur egun nagusi), *ekofaxismoaren* eta *nazionalismo berdearen* moduko jarrera erreakzionarioagoetarai-no, *ekosozialismoaren* eta *deshazkundearen* propo-samenetatik igarota, horiek guztiek premisa bera partekatzen dute: ez dira gai bizi dugun krisi eko-logikoaren aurrean irtenbide iraultzailerik planteat-zeko. Horrek agerian uzten du burgesiaren eraba-teko hegemonia kulturala, aipatutako korranteak egungo krisiaren aterabidea estatuan eta estatua-z gaindiko beste erakunde burges batzuetan proiektatzera daramatzen hori, kasu batzuetan irtenbide hori erantzukizun indibidualera zabaltzen. Era horretan, krisi kapitalistaren egiturazko kausak natu-ralizatzen amaitzen dute.

Egoeraren inguruko diagnostikoan puntu ego-kienak dituzten jarrearen kasuan ere (adibidez, me-taketa kapitalistak giza espeziearen erreproduktzio-rako oinarri biofisikoak arriskuan jartzen dituela onartzean), presente dago ortzimuga iraultzaile baten gabezia. Horren adibide dira beren proposa-men politikoak^[44], aberastasunaren birbanaketan,

«% 99 % 1en aurka» gisako leloetan («herria oli-garkiaren aurka» formularen bertsio bat, klaseen arteko kontraesanak estali eta aliantza interkla-sista baten aldeko apustua egiten duena), sektore estrategikoen *kontrola berreskuratzean* (kontrol estatalari buruz ari dira), eta zerrendatuko ez di-tugun beste hainbat aldarrikapenetan oinarrituak. Arazoa kapitalismoa dela esatea eta kapitalismoa erreformatzeko eta modernizatzeko neurriak pro-posatzeak ez du fundamenturik. Kontua ez da «lan-gile-klasearen mesederako trantsizio ekologikoa» ziurtatzea, baizik eta klase sozialen abolizioa be-ra, natur baliabideen erabilera arrazional baterako berme bakar gisa.



Azken batean, estrategia iraultzaile bat garatzea-ri uko egitea da mugimendu horiek, haien adieraz-pen erradikalenak barne, ezintasunera kondenatzen dituen (edo zuzenean burgesiaren aldetiko asimilaziora). Proletariotzaren botere indepen-dentearen eraikuntzara bideratutako indar-meta-ketarako eredu baten faltan, mugimendu politiko batek lor lezake burgesiak hobekuntza-aldarrika-pen jakinak bere gain hartzea, baina mugimendu hori burgesiak *administratua* izango da, besterik ez. Horren adibide dira «kontsumo murrizteko» alda-rrikapenak. Pobretzea masiboki hedatzen ari den testuinguru honetan, proletariotza ikusten ari da nola jada murriztuz doan bere kontsumorako gai-tasuna, eta, beraz, horrelako leloak metaketa-ziklo berriaren baldintza saihestezinak moralki justifi-katzeko erabiltzen dira. Funtzionalak dira, hortaz, lan-indarraren merkatzeari begira, haren errepro-dukzio-kostuak murriztea bultzatzen baitute.

Era berean mahai gainean jartzen den irtenbi-deak izaera globala izan behar du. Alferrikakoak dira «ongizate estatuaren itzulerarako» eta «tran-tsizio ekologiko justurako» deiak, lanaren nazioar-teko banaketa alde batera uzten bada, hau da, ez bada kontuan hartzen periferia kapitalistaren ar-pilatzean eta gainesplotazioan oinarritu dela zentro imperialistan gizarteko zenbait estratuk izan duten bizi-bitartekoaren oparotasun erlatiboa, egun gain-beheran dagoena. EBren *politika berdeak* premisa berdinean oinarritzen dira, eta, beraz, hainbat ba-liabideren eskasia gero eta handiagoa den garaio-tan, aurreikus daiteke horien kontrolarengatiko gatazka armatuak ugaritu egingo direla, eta, aldi berean, «protektionismo energetikoarekin» lotu-riko jarrerak indartzeko aukera dagoela.

Aurrekoari dagokionez, kontuan izan behar da gaur egungo egoeran jarrera *neomaltuhisarrak* (au-zi demografikoa *mistifikatzen* dutenak, hura natu-



**Gizateriak «naturarekin
duen materien trukea
arrazionalki erregulatzea»
da gakoa, eta truke hori
«kontrol komunaren» pean
jartzea. Era honetan, kanpo
botere batek ez gaitu klase
gisa menderatuko eta ez
ditu gure existentziaren
baldintza biofisikoak
arriskuan jarriko; aitzitik,
gizakion botere bateratu eta
kontzienteak kontrolatuko
ditu gure ekoizpen-indarrak
eta ekoizpen-harremanak**



Pobretzea masiboki hedatzen ari den testuinguru honetan, proletariotza ikusten ari da nola jada murriztuz doan bere kontsumorako gaitasuna, eta, beraz, horrelako leloak metaketa-ziklo berriaren baldintza saihestezinak moralki justifikatzeko erabiltzen dira

raltzat hartuz eta haren izaera soziala albo batera utziz), zeinak neurri handiagoan edo txikiagoan beti egon diren mugimendu ekologistari lotuta, ugaritu egin daitezkeela, horren esplizituak ez diren jarretatik hasi eta erreakzionarioagoak diren beste batzuetaraino, zuzenean gizateriaren kapa zabalena hilketa planteatzen duten proposamenak barne, zeinak argudiatzen duten «eskuragarri dauden baliabide naturalak ez direla nahikoak munduko biztanleria osoarentzat».

Beraz, premiazkoa da nazioartean estrategia sozialista garatzea, eta, fase honetan, garrantzi berezia hartzen du *klase-borroka kulturalak*, zeinaren baitan behin eta berriz azpimarratu beharko dugun giza bizitzarako baldintza naturalak arriskuan jartzen dituen dinamika sozial dekadente hau gainditzeko beharra. Zentzu berean, problematizatu egin behar dugu belaunaldi ugariaren lanagatik lortutako aurrerapen teknikoak kontrol kapitalistaren pean egotea, gizateriaren ondare izan beharrean. Zergatik ordaindu behar dugu argia izateko? Zergatik ez dugu gure mugikortasunari buruz erabakitzeke gaitasunik?

Gerra kultural honetan, aipatutakoen gisako posizioei aurre egin beharko zaie, eta mugimendu sozialistarentzat garrantzi handia duten eztabaidei heldu beharko zaie. Adibidez, ekoizpen-indarren garapen maila hain handia izanik, hipotesi gisa planteatu daiteke gizateria osoarentzat kalitatezko bizi-maila bermatzeko baldintza materialak izan dairela. Hala eta guztiz ere, zenbait ekoizpen-baliabideren *neutraltasunaren auziari* heldu behar zaio, edo, beste era batera esanda, ekoizpen-indarren *potentzial suntsitzailaren* gaiari. Egiazki, aurrerapen teknikoak ez dira *berez* suntsitzailak; balorizazio-premiaren araberako aplikazio zehatzak ematen

die izaera suntsitzaila hori maila ekologikoan eta sozialean. Hala ere, energia-iturrien eta lehengaien auziak aurre egin beharreko galderak planteatzen ditu, aldi berean, sozialismoaren eraikuntzan aurrera egitearekin batera, gure gizarte-beharrak birdefinitzen goazen neurrian. Eztabaida horren adibide zehatz bat ibilgailu motordunarena da, haren eguneroko erabilera pribatua ezin baitzaie zabaldu munduko biztanle guztiei. Zalantzarik gabe, eraiki nahi dugun formazio sozial berriaren mugikortasun-beharrak desberdinak izango dira, baina gai horiek kontuan hartu beharrekoak dira. Ekoizpen-indarren aplikazioa determinatuko duen irizpide nagusia *onura unibertsala* izango da, eta onura hori baloratzeko orduan, auzi ekologikoak funtsezko garrantzia izango du nahitaez.

Amaitzeko, *Kapitala* obraren aipu bat hona ekarri, «ekoizpen kapitalistak teknika eta ekoizpen prozesu sozialaren konbinazioa garatzeko ezagutzen duen modu bakarra aldi berean aberastasun ororen jatorrizko bi iturriak hondatzea da: lurra eta gizakia» (geuk itzuliz) ^[45]. Honekin lotuta, formazio sozial kapitalistaren garapen historikoak *metabolismo sozialaren haustura* izan du ondorio, hots, gizartearen eta naturaren arteko bereizketa geroz eta handiagoa. Horren aurrean, programa komunistak gizateriaren eta natura-ingurunearen arteko harreman berri bat du helburu. Marxen hitzetan, gizateriak «naturarekin duen materien trukea arrazionalki erregulatzea» da gakoa, eta truke hori «kontrol komunaren» pean jartzea. Era honetan, kanpo botere batek ez gaitu klase gisa menderatuko eta ez ditu gure existentziaren baldintza biofisikoak arriskuan jarriko; aitzitik, gizakion botere bateratu eta kontzientek kontrolatuko ditu gure ekoizpen-indarrak eta ekoizpen-harremanak. ●

OHARRAK

1 Tanurok (2007) *fluxu-energien* (berriztagarrien) zentraltasunetik *stock energetara* (erregai fosilak, batez ere) igarotzeak garapen kapitalistaren testuinguruan izan zituen inplikazio historiko eta ekologiko izugarriak nabarmentzen ditu, *stock energiak* denboraren giza eskalan agor daitezke eta.

2 *Statistical Review of World Energy 2021* - British Petroleum (2021). Gai horrek argipen bat merezi du; izan ere, Turielek (2021) azaltzen du egile batzuen arabera biomasa dela energia berriztagarri garrantzitsua, mundu osoko etxeetan egurra errez ekoiztutako energia barne hartzen duten heinean; ordea, datu hori sartzeari oso problematikoa izan daiteke duen errore-tarte handiagatik, eta gainera, energia kontsumo hori ia ez delako esanguratsua mundu mailako gizarte industrialak mantentzeko dagokionez.

3 *Key World Energy Statistics 2021. Final consumption* - International Energy Agency (2021). Energiaren Nazioarteko Erakundea (IEA) Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) 1973ko petrolioaren krisiari erantzuteko asmoz 1974an sortutako nazioarteko erakunde bat da, herrialde kideen (Amerikako Estatu Batuak buru) petrolio-hornidura ziurtatzeko eta Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeari (LPEE) kontrapisu egiteko. Hamarkadek aurrera egin ahala, IEA handituz joan da ELGAko estatuen energia-politiken kontseilari gisa dituen eskumenak.

4 Izan ere, lanaren produktibitatea handitzea energia-kontsumo globalaren hazkundearekin lotuta dago. Ondoz ondoko industria-iraultzen eta energia-iturrien erabilera gertatu diren aldaketen deskribapen xeheagoa: *Lugarren industria-iraultzaren oinarriak eta bere ondorio sozialak*. Arteka #7 (2020ko uztaila) - Beñat Gallastegi.

5 *Has the World Already Passed Peak Oil?* (2010). Eskuragarri *nationalgeographic.com* webgunean.

6 *El pico del diésel: edición de 2021* - Antonio Turiel (2021). Eskuragarri *crashoil.blogspot.com* webgunean. Artikuluan gaiari buruzko grafiko interesgarriak daude.

7 *Ezohiko petrolio* terminoak hein handiagoan edo txikiagoan *ohiko petrolio gordinaren* antzekoak diren substantziei egiten die erreferentzia, baina ezberdintasun nabarmenak dituzte eskuragarritasunari, erauzketa-teknikei eta errendimendu energetikoari dagokionez. Haien arazo nagusiak hauek dira: erauzteko garestiagoak direla eta ez dutela diesela ekoizteko balio. Petrolio hauen adibide dira haustura hidraulikotik (*fracking*) erauzitako harri trinkoko petrolio arina eta petrolio estra astunak.

8 Energia-iturri bakoitzaren ezaugarri eta arazoen azalpen zehatzago baterako, gorago aipatutako liburua irakurtzea gomendatzen dugu: *Petrocalipsis. Crisis energética global y cómo (no) la vamos a solucionar*, Antonio Turiel CSICeko ikertzailearena.

9 Izan ere, petrolio-enpresek 2014tik meategi berriak bilatzeko eta ustiatzen hasteko inbertsioa % 60 murriztu dute (Bordera eta Turiel, 2022), eta enpresa handi horiek eta beste batzuk modu masiboan inbertitzen ari dira *berriztagarrien negozioan*. Horren erakusgarri dira Araban eta Nafarroan eraikitzeak asmoa den *megaparque* eolikoak eta fotovoltaikoak.

10 «La escasez de materiales es una estaca en el corazón de la transición energética» («Material-eskasia estola bat da trantsizio energetikoaren bihotzean») (2021eko azaroaren 29a). Antonio Turieli egindako elkarrizketa, *csic.es* webgunean eskuragarri.

11 Hainbat adibide aipa badaitezke ere, azaldutakoaren adibide on bat Ukrainako gatazkaren igoaldi belikoa da. Europako herrialdeek Errusiatik inportatutako erregai fosilekiko (batez ere gas naturala, baina baita petrolio eta ikatza ere) duten mendekotasuna eta AEBk eta Txinak munduko nagusigoa lortzeko duten lehia ezinbesteko elementuak dira gatazka hau ulertzeko. Izan ere, martxoaren amaieran, Europar Batasunak eta AEBk akordio bat sinatu zuten, zeinaren

bidez azken honek EBrentzako gas natural likidotuaren salmentak % 68 handitzeko konpromisoa hartu zuen, eta horrek, zalantzarik gabe, estatubatuar kapitalarekiko mendekotasuna handitzea ekarriko du. Gainera, aipagarria da estatubatuar gasa *fracking*etik datorrela hein handi batean. Teknika hori debekatuta dago EBko herrialde gehienetan, eta haren erauzketaren eta itsaso bidezko garraioaren kostuak oso handiak dira. Ondorioz, gasarekiko menpekotasuna duten herrialdeak haren hornikuntzagatik prezio altuak ordaintzeko prest dauden testuinguruetan baino ez da errentagarria.

12 Proposamen horien zentzua eta klase-izaera ulertzeko, oso gomendagarria da Arteka aldizkariaren 11. zenbakia, 2020ko azarokoa, *Eite berdea* izenekoa.

13 *A European Green Deal*. Hemen eskuragarri: ec.europa.eu.

14 *Funtsak, baldintzazkotasuna eta krisia: Europar Batasuna mehatxatzen duen ekaitz perfektua*. Arteka #27 (2022ko apirila) - Jose Castillo.

15 *Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana* - Espainiako Estatuko Gobernua (2021).

16 Erreforma horiek guztiak *proletariotzaren bizi-baldintzen aurkako ofentsiba burges* baten testuinguru orokorraren baitan kokatzen dira: langile-klasearen aurrezkiak zuzenean arpilatzeak neurrietatik hasi (hala nola bidesari gehiago eta autoa aparkatzeagatik tasak ezartzea, beste tasa eta zerga batzuk garestitzea eta eraikinen birgaitze energetikorako eskakizunak jartzea) eta gizartearen haserrearen baretzea bilatzen duten beste batzuetaraino, miseria gero eta handiagoko testuinguru batean (besteak beste, bonu sozial elektriko eta termikoa edo *Gutxieneko Bizi Hornidura* bezalako neurriak indartzea eta erregai litroko prezioa 20 zentimo merketzea).

17 «Playing my part. How to save money, reduce reliance on Russian energy, support Ukraine and help the planet» (2022ko apirila). Hemen eskuragarri: iea.org.

18 *Energy consumption in households* - Eurostat (2021). Hemen eskuragarri: ec.europa.eu.

19 Frantziar Estatuaren kasuak, zeinak Ipar Euskal Herriari eragiten dion, elementu komunak ditu, baina baita zenbait ezaugarri propio ere, hala nola energia nuklearraren zentraltasuna eta estatuak tarifetan esku-hartze handiagoa izatea; beraz, hemen ia ez da aztertuko.

20 Egungo krisian finantza-ofentsibak duen pisua kokatzeko: *Aurrekaririk gabeko krisi baten gainera apunte ekonomikoak*. Arteka #7 (2020ko uztaila) - Koltiza.

21 2005. urtean, EBk bere *Emisio-Eskubideen Merkataritza Erregimena* jarri zuen martxan. Haren bidez, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen lehen merkatua arautu zen, «emisio kutsatzaileak murrizteko helburua sustatzea» aitzakiatzat hartuta. Harrezkero, beste herrialde batzuek antzeko merkatuak garatu dituzte.

22 *Internal energy market* - Europako Parlamentua. Hemen eskuragarri: europarl.europa.eu.

23 Gai konplexua izanik, hau hobeto ulertzen lagun dezakeen ikus-entzunezko material ugari dago, hala nola, ondorengo bideoa: «El Sistema que Hace que el Precio de la Luz esté Altísimo» - *Quantum Fracture* (2021eko abendua), *YouTuben* eskuragarri dagoena. Sistema marjinalistaren zentzua eta horretaz haratago egon daitezkeen alternatiben mugak modu ulergarrian azaltzen dituen arren, egilea ez doa ulermen-marko burgesetik haratago alternatibak planteatzeari dagokionez.

24 «El 'pool' podrá tener precios negativos a partir del próximo 6 de julio» (2021eko maiatzaren 20a). elperiodicodelaenergia.com.

25 *10/2022 Errege Lege-dekretua*, maiatzaren 13koa.

26 *Ministro Kontseiluaren Erreferentzia*. 2022ko maiatzaren 13a, ostirala. Hemen eskuragarri: lamoncloa.gob.es.

27 «Los cuatro comercializadores con mayores cuotas en el sector eléctrico redujeron en más de ocho puntos porcentuales la cuota de clientes del mercado libre entre 2017 y 2020» (2021eko abenduaren 21a). cnmc.es

28 *Los datos del Panel de Hogares analizan el conocimiento de la contratación del suministro energético* (2021eko abenduaren 3a). cnmc.es

29 «El gran negocio de la luz y el gas: así se reparten las eléctricas 37 millones de clientes» (2017ko uztailaren 30a). elindependiente.com

30 *Informe de Supervisión de los Cambios de Comercializador. Cuarto trimestre 2020 - CNMC* (2021).

31 «Cuánto han ganado las eléctricas en el último año: Iberdrola, Naturgy o Endesa» (2022ko martxoaren 16a). lainformación.com

32 Azken urteko energiaren prezioen igoera baino lehenagoko datu interesgarri batzuk argi azaltzen dira aldizkari honetako erreportaje batean: *Pobreziaren hazkundera eta nolakotasuna Hego Euskal Herrian: Mugimendu Sozialistaren hipotesien baieztatpena*. Arteka #13 (2021eko urtarrila) - Martin Goitiandia eta Unai Ioldi.

33 «Pobreza energética: la oscuridad que mata» (2022ko urtarrilaren 11). elpais.com

34 André Gorzen hitzetan: «Masa-automobilismoak ideologia burgesaren erabateko garaipena hezurmamitzen du eguneroko jardunaren eremuan: gizabanako bakoitza besteen kontura gailendu eta nabarmendu daitekeelako ustea norbanakoengan errotu eta sakontzea dakar.» (*La ideología social del automóvil*, 1973, geuk itzulitako aipua)

35 Zenbatespen hau ondorengo lanetan azaltzen diren datuetan oinarrituz egin da: *La evolución de la industria automovilística española, 1946-1999: una perspectiva comparada* (Jose Luis García Ruiz) eta *El coche que puso a España sobre ruedas* (Serafi del Arco).

36 Errepide mota desberdinen kilometroei buruzko datuak Espainiako Estatuko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministeriotik (MITMA) hartu dira.

37 Hemendik aurrerako autoen kopurua ondorengo informeko datuetan oinarrituz kalkulatu da: *Evolución del parque de vehículos*, ICEA elkarteak egina.

38 «La España Vaciada y sin cohesión del oeste» (2019ko apirilaren 2a). elsaltodiario.com.

39 1980ko datuak Espainiako Estatuko Sustapen Ministerioaren 2005eko Urtekari Estatistikotik (283. or.) hartu dira, eta 2007koak Espainiako garraio eta logistikaren Behatokitik.

40 *El Observatorio del Ferrocarril en España. Una aproximación a la evolución y características del sector ferroviario en España*. Hemen eskuragarri: revistadeobraspublicas.com.

41 Erdieroaleen krisia 2023an amaituko dela esaten da, nahiz eta eszeptikoagoek 2025era arte iraungo duela dioten, eta horri lehengaien garestitzea gehitu behar zaio. Horrek guztiak zaildu egingo du automobil-parkea berritzea, eta, era berean, trafiko-istripuak izateko aukera handiagoa ekarriko dio gure klaseari

42 *Precio de la gasolina y gasóleo (diesel) en España, cifras, datos y estadísticas*. Hemen eskuragarri: epdata.es.

43 Garraiorako europar funtsei buruzko dokumentuan 2024 aipatzen da neurri hori ezartzeko data posible gisa, eta bertan ohartarazten da herritarren artean neurriak sor dezakeen aurkakotasuna. Izan ere, Espainiako Estatuko egungo gobernua jakitun da horrelako neurriek, bai garraiolariengan bai erabiltzaileengan, sor dezaketen haserre; zentzu horretan interpretatu behar da diesel eta gasolina 20 zentimo merkatu izana.

44 Proposamen horiek aipatzen dira, adibidez, Antonio Turiel eta Juan Borderaren testuetan, gaur egun *deshazkundera* planteatzen duten posturen artean erreferentzia intelektual diren egileak, edo Alberto Garzón (Espainiako Estatuko Kontsumo ministroa gaur egun) berriki argitaratuko artikulu batean: «Los límites del crecimiento: ecosocialismo o barbarie». Hemen eskuragarri: *la-u.org*.

45 *El Capital: Crítica de la Economía Política* - Karl Marx.

BIBLIOGRAFIA

Adam Radomski (2020) - *Borroka zerumuga berriak: logistika eta garraioa (I eta II)*. *gedar.eus*.

Adam Radomski (2020) - *Automobilgintzaren sektorea*. *gedar.eus*.

André Gorz (1973) - *La ideología social del automóvil*.

Anton Pannekoek (1909) - *La destrucción de la naturaleza*.

Antonio Turiel (2020) - *Petrocalipsis. Crisis energética global y cómo (no) la vamos a solucionar*.

Antonio Turiel y Juan Bordera (2022) - *El otoño de la civilización. Textos para una revolución inevitable*.

Alfonso Puga (2022) - *Geopolítica del gas natural (Geo-Gas) y la dependencia europea de terceros*. Global Strategy.

Comité Invisible - *El poder es logístico: ¡Bloqueemos todo!*

Damiano Tagliavini, Ignacio Sabatella (2012) - *La expansión capitalista sobre la Tierra en todas las direcciones. Aportes del Marxismo Ecológico*.

Daniel Tanuro (2007) - *¿Energías de flujo o energías de stock? Un caballo de Troya en la ecología de Marx*.

Eduardo Olier (2015) - *Geoeconomía de la energía, el agua y los recursos naturales*.

Gato Soriano, Nicole Thé, Jacques Philipponneau (2019) - *Acerca del movimiento de Los Chalecos Amarillos*. Etcétera.

GEDAR LANGILE KAZETA (2019) - *Soluzioa globala izan daiteke soilik*. *gedar.eus*

GEDAR LANGILE KAZETA (2021) - *Kapitalismo berdearen kontraesanez (I eta II)*. *gedar.eus*

Isidro López, Rubén Martínez (2021) - *La solución verde. Crisis, Green New Deal y relaciones de propiedad capitalistas*.

Ivan Illich (1973) - *Energía y Equidad*.

Jose Castillo - *Funtsak, baldintzazkotasuna eta krisia: Europar Batasuna mehatxatzen duen ekaitz perfektua*. Artea #27 (2022ko apirila).

José Mateos (2022) - *Así funciona la red global de materias primas. Descifrando la Guerra*.

Los amigos de Ludd (2007) - *Las ilusiones renovables*.

Manuel Sacristán (2021) - *Ecología y ciencia social. Reflexiones ecologistas sobre la crisis de la sociedad industrial*.

Markel Samaniego (2020) - *Petrolioaren harakiria eta bizkarrezur proletarioa*. *gedar.eus*.


Wildcat (2009) - *El fin del automóvil*.

Langile hipotekatuetatik langile pobreetara: soldaten historia Espainiako Estatuan

83

Testua
Irudia

Jose Castillo
Lander Moreno



Soldatak dira langile klasearen erreprodukzioa ziurtatzeko kapitalak erabiltzen duen bizi-bitartekoa. Soldata-baldintzak kapitalaren errentagarritasun-egoeraren eta langile klaseak klase borrokan momentuan duen indarraren arabera dira.

Bi aldagai horien arabera, esan daiteke gaur egun Espainiako Estatuko langile klaseak bere soldata errearen eta bere bizi-baldintzen benetako erreprodukzio baldintzetan atzerakada egoera bizi duela. Atzerakada hori ez da egungo krisira bakarrik murrizten, ezta gutxiagorik ere; laurogeiko hamarkadatik aurrera soldaten debaluazioaren aldeko estrategia argi bati buruz hitz egin daiteke behintzat, Espainiako kapitalismoa krisi kapitalistari erantzuteko euroaren dibisa komunaren Europako lehiakortasun-esparruan sartzearen ondorioz.

Gizarte-harreman kapitalisten pean, giza lanerako gaitasuna, inguratzen gaituen ingurunea gure ongizaterako moldatzeko dugun gaitasuna, ez da gure bizi-erreprodukzioa bermatzeko bakarrik erabiltzen, baizik eta produkzio-harreman kapitalisten pean, produkzio-baliabiderik ez duten proletario gehienek bizirik iraun ahal izateko beren lan-indarra saldu behar izaten dute soldata baten truke. Beraz, soldatapeko langileak beren lan egiteko gaitasuna saltzen dio lan-prozesua abian jartzeko ekoizpen-baliabideen jabetza duen kapitalista bati (kontuan izanda jakina, lan guztietan ez dagoe la harreman zuzenik produkzio-bi-tartekoekin, baina besteren lanaren gaineko agintea egon badagoela). Era berean, lan-indarraren salgai horregatik ordaintzen duen prezioa soldata da.

Kapitalismoaren peko salgai guztiekin bezalaxe, lan-indarraren-gatik ordaintzen den azken balioa eta prezioa (soldata) une historikoko hainbat aldagai sozialen arabera alda daiteke. Horregatik, soldata kategoria sozial eta historikoa da. Haren balioa bat dator langileak sozialki produkzio eta erreprodukziorako behar duen lan-denborarekin, lan-indarraren eramaile bizia baita. Marxek honela definituko luke: «Lanerako indarren balioa indarraren jabeak indar hori mantentzeko behar dituen bitartekoen balioa da», bizi-baldintza sozial eta historiko normaletan, gehitu beharko litzateke.

Hau da, langilearen erreprodukzioa bere denboraren eta lekuaren baldintza sozial zehatzen mende dago; izan ere, mendealdeko gizarte kapitalistan sozialki onartuta dago soldatak langilearen aisialdiaren erreprodukzioaren zati bat ere betetzen

duela. Hala nola, lagunekin zinemara edo kaña batzuk hartzera joatea, hori soldataren kontsiderazio sozialaren barruan sartzen baita. Soldata zenbateko gutxiengo eta gehiengo baten artean mugitzen da; behetik, langileari fisiologikoki bizirautea ahalbidetzen dion gutxieneko ahalmenari egiten dio erreferentzia. Goitik, soldaten batez besteko gehieneko zenbatekoari, zeinak ezin izango duen inoiz epe luze batean gainditu kapitalaren errentagarritasuna edo haren irabazi-tasa zalantzan jartzen duen kopurua.

Bestalde, eta soldataren kategoriaren sarrera labur hau amaitzeko, gogoratu behar da soldata-teoria marxistan ez dagoela langileak denboran zehar benetan pobretzeko joerarik. Soldata marxistaren teoriatik hiru soldata-kategoria atera daitezke: soldata nominala, erreala eta erlatiboa. Soldata nominala langileak bere lan-indarra saltzeagatik jasotzen duen

Soldata zenbateko gutxiengo eta gehiengo baten artean mugitzen da; behetik, langileari fisiologikoki bizirautea ahalbidetzen dion gutxieneko ahalmenari egiten dio erreferentzia. Goitik, soldaten batez besteko gehieneko zenbatekoari, zeinak ezin izango duen inoiz epe luze batean gainditu kapitalaren errentagarritasuna zalantzan jartzen duen kopurua

diru-zenbateko gordina da (700€, 2.200€ edo langile bakoitzaren nominan ezarritakoa). Soldata errealak, berriz, langileak jasotako soldata-zenbatekoa eta soldata horrekin eskuratu ahal izango duen salgaien prezioa lotzen ditu, hau da, inflazioa kontuan hartuta. Azkenik, soldata erlatiboak langile klaseak jasotzen dituen soldata guztiak esparru geografiko jakin batean sortutako gizarte-aberastasun kapitalista osoarekin neurtzen ditu, gizarte-aberastasun horretatik langileei dagokien zenbatekoa neurtzeko.

Marxen arabera, azken soldata-kategoria hau langileen pobretze erlatiboak da. Hau da, Marxek soilik esan zuen gizarte-harreman kapitalistek denboran erreproduzitzeak aberastasunaren kontzentrazioa eta polarizazio handiagoa eragiten zuela, estatistika ofizialek berresten duten datua ^[1]. Teoria marxistaren kritikatik ezin da ondorioztatu langileak, termino errealetan, gero eta pobreago izango lirатеkeela eta bizi-baldintza eskasagoetan biziko lirатеkeela. Horrek ez du esan nahi, krisi kapitalista garaian, langileak benetan pobretu ezin direnik, zuzeneko edo zeharkako soldata-murrizketen bidez ^[2].

Artikulu honen helburua Espainiako Estatuko langileen soldata-maila orokorra kualitatiboki eta kuantitatiboki ulertzea da. Denboran zehar aldatu diren baldintza ekonomiko-politikoak zehazten zentraluko gara, zeinak eragin duten Espainiako Estatuan krisi kapitalista hamarkada bat baino gehiago jasan ondoren kontratupean izan arren pobrezia egoeran dauden langile multzo handi bat egotea. Horretarako, Espainiako Estatuak Europar Batasunaren integrazio-prozesuan izandako bilakaera eta haren Europako lanaren nazioarteko banaketa berezia aztertu behar dira.

Periodo de Liquidacion: del 01/07/2010 al 31/07/2010

1.500,00

1.250,00

Total días 150,00

74,44

30

56,00 €

1.680,00 €

Total Días: 30

***Errentagarritasunaren
galera arintzeko,
Europako integrazio-
prozesuak, laurogeiko
hamarkadatik aurrera,
funtsezko bi helburu izan
zituen: soldata-errentei
eustea eta lan-indarraren
merkatua desarautzea***

EUROPAKO SOLDATEN GEOGRAFIA POLITIKOA

Espainiako Estatuko langileen soldata-baldintzen argazki osoa lortu nahi bada, lehenik eta behin, bloke kapitalistari eta langile horien lanaren nazioarteko banaketari lotuta ulertu behar da: Europako metaketa-kapitalistaren espazioa eta lan-indarraren merkatu-banaketa segmentatua, estatu kide bakoitzaren produkzio-espezializazioaren arabera.

Diskurtso ofizialaren arabera, Europako merkatu komun eta monetarioaren erregimenaren pean, herrialde guztiek apurka-apurka berdintzera eta integratzera jotzen dutela esaten den arren, errealitatea da EBren barruan ekonomia ezberdinak bizi direla: batetik, esportatzeko gaitasunean oinarritutako erreprodukzio-potentzialtasuna duten ekonomiak. Bestetik, Europako erdiguneko industria-prozesu jakin batzuen deslokalizaziorako subsidiarioak direnak. Azkenik, kapitalaren osaera organiko baxukoak eta defizitarioak direnak, zeinak kreditu bidez finantzatu behar diren. Horrela, haien zor nazionala loditzen dute.

Beraz, gutxienez, EBren barruan hiru Europa daudela aipatu behar da. Hori EBko herrialdeek erakusten duten konplexutasun ekonomikoaren maila desberdinetan edo kapitalaren osaeran ikusten da. Alde batetik, Alemania buru duen industria eta teknologia zentroa dago. Talde honen parte dira Herbehereak, Finlandia, Austria, Belgika edo Luxenburgo ere. Horien erreprodukzioa prozesu industrialen eta esportazio merkantzien teknologiazio handian oinarritzen da.

Horren aurrean, Europako hegoaldeko eredu periferikoa dago, Espainiak, Portugalek, Greziak, baita Italia berak ere osatzen dutena. Eredu honen ezaugarri komuna garapen teknologiko txikiagoa, merkataritza-balantzan desorekak eta zorpetzeko joera dira. Zentroaren eta periferiaren arteko arrakala horri Europako ekialdeko herrialdeen kategoria gehitu dakioke. Herrialde hauek zentroko industria-prozesuen balio-kateen deslokalizazioen subsidiario gisa funtzionatzen dute.

Hori guztia honela gauzatzen da: Europar Batasuneko lan-kostu handienak Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeetan kontzentratzen dira, eta herrialde horietan kapitalaren produktibitate handiagoak aukera ematen baitu langileentzako soldata-kostu handiagoak ezartzeko. Kontrara, Mediterraneoko herrialdeetan, non lanaren intentsitatea kapital konstantearena baino handiagoa den, lan-kostuak txikiagoak dira. Hau da, lanaldi luzeagoengatik soldata baxuagoak lortzen dira. Espainiaren kasuan, Europako nazioarteko banaketa kapitalistaren barruan periferiko gisa karakterizatu badezakegu ere, estatuaren barruan Euskal Herria, Katalunia edo Madril gisako lurraldeak daude, Europako erdialdeko estatuen produkzio-esparru lehiakorragoa eta parekoagoa lortu dutenak. Horren ondorioz, langileek soldata handiagoak jaso dituzte historikoki ^[3].

Hala ere, EBk bere estatu kide guztiei, produkzio-zentrokoak zein periferikokoak izan, ondorengo norabide orokorra ezartzen die: Europako erakunde politikoek soldata etengabe produktibitatearen azpitik igo behar direla eskatzen dute. Hau da, kapitalaren irabazi-tasaren azpitik.

Errentagarritasunaren galera arintzeko, Europako integrazio-prozesuak, laurogeiko hamarkadatik aurrera, funtsezko bi helburu izan zituen: soldata-errentei eustea eta lan-indarraren merkatua desarautzea. Politika horiek lan-merkatuko «zurruntasunak» murriztuz lehiakortasuna areagotzeko diskurtsoaren pean aplikatu ziren. Hala ezartzen zuen Europako Batzordeak 1994an argitaratu zuen *Lehiakortasunari, hazkundeari eta enpleguari buruzko Liburu Zuriak*. Honek soldata-doikuntza iraunkorra produktibitatearen hazkundearen azpitik mantentzearen irtenbidea gomendatzen zuen. Berriro ere paradigma bera sinatu zen estatu kide guztien aldetik 2011ko Euro Plusaren aldeko Itunean, euroaren krisi bete-betean.

COVID-19aren krisi pandemikoaren ondoren eta zenbait herrialdetan gutxieneko soldatak igo ondotik, Europako erakundeek beren diskurtsoari ñabardurak egin dizkiote funtsa bera aldatu gabe. Izan ere, 2020ko urriko zuzentarau batean, *Gutxieneko soldata egokiak Europar Batasunean, Europa mailako gutxieneko soldataren igoerak koordinatzeko zuzentaraua* deritzon, Batzordeak berriro ere igoera horien muga produktibitatean jarri zuen. Beraz, estatuek sindikatu eta patronalekin finkatu ahal izango zituzten soldata-igoerak, baina «soldatak produktibitatearen bilakae-rara egokituta» ^[4].

Beraz, Europako moneta-batasunaren instituzionalizazio garaitik, 2010-2015 urteetako euroaren krisitik igaroz eta egungo inflazio-krisi postpandemikora arte, Batzordearen helburua soldaten hazkundea prezioen bilakaeratik (inflaziotik) bereiztea eta horiek produktibitatearen bilakae-rara edo, bestela esanda, kapitalaren errentagarritasun-baldintzetara finkatzea izan da.

ESPAINIAKO LAN- ERREGIMENAREN TXERTATZEA EUROAN

Espainiako Estatuaren kasua paradigmatikoa da Europa mailan, modernizazio industrial berantiarraren ondorioz eta Bigarren Mundu Gerra osteko klase ertain eta fordista-keynesiarren gizarteratze berantiarra izan zela eta. Modernizazio industrial berantiar horrek, diktadura frankistaren hasierako autarkia zela eta, soldata egonkorrei lotutako langile-geruza ahul eta berantiar bat sortu zuen, industria-eremu fordistan izan ohi ziren lanen bidez. Espainian gutxieneko industria-sare lehiakorra finkatu zenerako, Europako erdigunearekin alderatuta (desarrollismo frankistaren urteak, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadak), handik urte gutxitara desindustrializazio prozesuan sartu zen (laurogeiko hamarkada), Espainiako Estatua orduko Europako Ekonomia Erkidegoaren eta etorkizuneko EBren lanaren nazioarteko banaketan sartzera egokitzeo^[5].

1993an Maastricht sinatutako euroaren proiektuak estuki baldintzatu zituen gizarite eta lan-politikak laurogeita hamarreko hamarkadan zehar, eta egungo lanaren malgutasunaren eta txandakatzearen paradigma sendotu zuen. Politika monetarioak manipulatzeko ezintasunak eta zerga-politikan muga zorrotzak bete behar izateak, estatuek beren lan-indarraren barne debaluazioetara jotzea eragin zuen, euroa integratzeak irekitzen zuen nazioarteko lehia egoeran lehiakor mantentzeko.

Sektore publikoaren aurrekontuen gaia funtsezkoa zen Maastrichteko Itunak Europako estatuentzat arautzen zuen politikan. Defizit publikoaren nahitaezko murrizketa lege nagusitzat ezartzen zen heinean, ez zen onartu kapitalaren errenta handienei zerga orokorrak igotzea. Gastu publiko soziala, aldiz, estatuek egin beharreko murrizketen erdigunean jarri zen. Bestalde, ekonomia lehiakorragoa bihurtzeko ahalegin orok bere-

Maastrichten paradigmak argudio sorta bat eskaini zien laurogeita hamarreko hamarkadan PSOEn eta PPren gobernuei enpresa publikoak pribatizatzeo, pentsio-funtsak murrizten hasteko eta kaleratzearen kostua merkatuko zuten lan- erreforma handiak ezartzeko

kin zekarren lan-kostuak murrizteko betebeharra, bai lan-kostu zuzenak (soldatak) jaitsiz, zein zeharkakoak (zerbitzu publikoak) eta geroratuak (pentsioak) ere.

Maastrichten paradigmak argudio sorta bat eskaini zien laurogeita hamarreko hamarkadan PSOEn eta PPre gobernuei enpresa publikoak pribatizatzeo, pentsio-funtsak murrizten hasteko eta kaleratzearen kostua merkatuko zuten lan-erreforma handiak ezartzeko. Europaren koartada erabiliz, modernizazio europarraren trena ez galtzeko argudio engainagarriarekin, politika antisozialak kateatzeari ekin zitzaion eta politika horiek Espainiako klase ertainetako lehen gizaritearen paradigmarekin amaitu zuten. Hau da, eredu fordista-keynesiar batean oinarritutako desarrollismo frankistaren baldintzapean, lehen langile klasearentzat mugatuta zeuden ondasun eta zerbitzu jakin batzuk, hala nola, jabetzako etxebizitza edo auto partikularra, soldataz

eskuratu ahal izan zituzten pertsonak desagerrarazi zituzten. Maastricht paradigmatik abiatuta, Espainiako klase ertainen engranaje osoak gehiago joko luke kreditu errazaren eskuragarritasunera soldatara bertara baino, etxebizitzarena gisako burbuilak sortuz^[6].

Ildo horretan, Felipe Gonzalezen PSOEk soldata murrizketaren bidea erraztu zion Jose Maria Aznarren gobernuari, PPk gidatuko baitzuen Espainiako Estatuaren hasierako etapa euroaren barruan. Aipatzekoa da PSOEk 1992an onartutako *decretazo* gisa ezagutzen dena, Lege Dekretu bidez langabeziagatik sorospena jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldia luzatzea ezartzen zuena; soldatei dagokienez kotizaziopeko prestazioen ehunekoa murriztu zuena; langabeek gizarite-segurantzian kotizatzeo betebeharra ezarri zuena; langabeziagatik prestazioen zerga-salbuespenak ezabatu zituen; langabeziagatik prestazioaren gutxieneko mugak mu-

Desarrollismo frankistaren paradigma keynesiar-fordistak langile klasearen zati handi bati soldata bidez etxebizitza edo auto propio bat erosteko aukera irekiko zien, Maastricht paradigmatik aurrera, Espainiako klase ertainen engranaje osoak gehiago joko luke kreditu errazaren eskuragarritasunera soldata bertara baino

rriztu zituen eta lan-uzte eskubidea desagertzea erraztu zuena. Hainbestekoa izan zen lan-eskubideen aurkako erasoak, Felipe Gonzalezen gobernuari bi greba orokor kostatu zitzaizkiola UGT eta CCOO aldekoak zituen sindikatuen aldetik, 1992an eta 1994an.

Langabeziarako eskubidearen murrizketak berehala nabaritu ziren Espainiako Estatu osoko langile-klasean. EParen arabera (euskaraz, Biztanleria Aktiboaren Inkesta), 1993an batz bestea 3.481.000 pertsona zeuden langabezian, eta horietatik 1.933.000 langabek jaso zituzten prestazioak. Hau da, langabeziagatik estaldura-tasa orokorra langabeen % 55,6ra iristen zen. 1998an, euroan sartu baino urtebete lehenago, EPAren arabera langabeziaren batez besteko zifra 3.060.000 langilekoa zen, eta langabeziagatik prestazioen onuradunak 1.130.000 izatera jaitsi ziren. Langabeziagatik babesaren estaldura langabe guztien % 36,9ra jaitsi zen. 1993an baino ia % 20 gutxiago [7].



CONCEPTO	TIPO	APORTE EMPRESARIAL	CONCEPTO	TIPO	APORTE EMPRESARIAL
1. Contingencias comunes	AT y EP	Desempleo	1. Contingencias comunes	AT y EP	Desempleo
2. Contingencias profesionales y conceptos de recaudación conjunta	Formación Profesional	Fondo Garantía Salarial	2. Contingencias profesionales y conceptos de recaudación conjunta	Formación Profesional	Fondo Garantía Salarial
3. Colocación adicional horas extraordinarias			3. Colocación adicional horas extraordinarias		

103,40 €	
34,10 €	
2,20 €	
327,14 €	
50,00 €	



Aldi berean, PSOEren 1994ko eta PPren 1997ko lan-erreformak funtsezkoak izan ziren Espainiako lan-indarrean soldata prekarietatearen paradigma ezartzeko. Lan-erreforma horiek Espainiako lan-merkatuan enpresaburuei zuzeneko lan-kostua merkatzen zieten 16 kontratu-modalitate berri sartu zituzten: merkatuko premien ondoriozko behin-behineko kontratuak, praktikaldikoak eta prestakuntzakoak edo 28 urtetik beherako gazteentzako ikaskuntza-kontratuak. Kontratu horiek ez zuten kontratu-figura horren pean gizarte-segurantzaren etekinik izango, ezta langabezia-prestaziorako eskubiderik ere eta, gehienez ere, gutxieneko soldataren % 75 kobratu ahalko zuten.

Era berean, 1994ko lan-erreformak aldi baterako laneko enpresen (ETT) figura legeztatu zuen. 1998rako Espainiako Estatuko lan-kontratu guztien % 17 ziren, prekarietate handieneko baldintzetan. Laurogeita hamarreko hamarkadako Espainiako langabezia-tasa handiaz baliatzen ziren enpresak, non lan-indar erabilgarriaren % 25era izatera iritsi zen. Argudio ofizialak zioen langabezia maila handiaren arrazoia langileen babes sozial eta sindikal altua zela. Ondorioz, kaleratzea merkatzeko paradigma ezarri zen. Hala, Langileen Estatutuaren 52.c artikulua aldatu zen, enpresen lehiakortasuna eta produktibitatea kaleratze objektiboaren arrazoi gisa har zedin. Horrela, lehen bidegabetzat eta, ondorioz, enpresentzat garestiagotzat joko ziren kaleratzeen kostua merkatu zen. Enpresen irabazi-tasa legez ezarri zen Espainiako lan-merkatuaren arautzaile nagusi gisa.

Espainiako Estaturik Europako moneta bakarrean sartzera eraman zuen bideak errepresio eta soldata-doikuntza etengabearen esparrua instituzionalizatzea ekarri zuen, non 2008 osteko krisiaren lan-erreformek, Zapateroren gobernuaren 2010eko lan-erreformak eta Rajoyren gobernuaren 2012ko erreformak esparru honetan sakontzea baino ez zuten ekarri; PSOE-Podemos koalizio-gobernuaren 2021eko azken lan-erreformak ukitzen ez duen paradigma, langabeziaren zenbait kontratu-mota egiteko modua baino ez baitu aldatzen. Era berean, kaleratzea merkatzeko esparrua bere horretan uzten du eta Estatuaren figura indartzen du langabezia-prestazio jakin batzuen bermatzaile gisa. Hala nola, ERTE prestazioena.

SOLDATA-ARRAKALA, BELAUNALDI-ARRAKALA

Artikulu honen hasieran esan den bezala, soldata marxistaren legeak zehazten duena soldata erlatiboaren funtsezko kontsiderazioa da. Hau da, langileek kontrolatzen duten aberastasun osoaren zatiagatik kontuan hartzen dena, ondorio praktikoetarako BPGren guztizkoan soldata-partaidetza gisa neur daitekeena. Neurketa horrek erakusten du Espainiako Estatuen kasuan laurogeiko hamarkadatik aurrera lan-baldintzen aurkako erasoek, laurogeita hamarreko hamarkadan Maastrichten paradigman instituzionalizatuak izan zirenak, sortutako aberastasun sozialaren zati gero eta handiagoa kapitalaren esku geratzea eragiten zutela eta gutxiago langileen esku.

Zehazki, AMECOn (EBko estatistika ekonomikoko zentrala) datuetan oinarrituta, Espainiako soldatek BPGrekiko zuten partaidetza % 66 ingurukoa zen 1980an; 2000. urterako, zifra hori % 58 ingurura jaitsi zen. Euroaren krisian Espainiako Estatuko langileen guztizko soldata-baldintzen aurkako beste eraso bat egin zen, 2009tik 2019ra bitarteko hamarkadako denbora tartean soldaten pisu erlatiboa BPGrekiko % 57,8tik, % 53,5era jaitsi baitzen. Hau da, kapitalaren esku geratuko den gizarte-aberastasunaren % 4,2ko jaitsiera ^[8].

2020. urterako, Espainiako Estatuko langileek 299 euro gutxiago jasotzen zituzten batez beste urteko soldatan 2000. urtearekin alderatuz gero, urte horietan zehar, noski, bizitza garestitzen joan den bitartean

Euroaren krisian Espainiako Estatuko langileen guztizko soldata-baldintzen aurkako beste eraso bat egin zen, 2009tik 2019ra bitarteko hamarkadako denbora tartean soldaten pisu erlatiboa BPGrekiko % 57,8tik, % 53,5era jaitsi baitzen. Hau da, kapitalaren esku geratuko den gizarte-aberastasunaren % 4,2ko jaitsiera

Baina langileen pobretze erlatiboaz gain, krisi kapitalistek langileek jasotzen duten soldata nominala bera murriztea eragin dezakete, kapitalaren errentagarritasun-baldintzei eutsiko zaiela ziurtatzeko. Hala gertatu zen Espainiaren kasuan, 2010eko euroaren krisitik aurrera. ELGAren (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) datuen arabera, Espainiako urteko soldaten batez besteko tasa 26.836 eurokoa zen langile bakoitzeko 2000. urtean. 2009an, langile bakoitzeko 29.308 euroko soldaten batez besteko maximoa lortu zen eta, hortik aurrera, krisiaren hurrengo hamarkadan etengabe jaitsi zen. 2020an langile bakoitzeko 26.537 euroko batez besteko soldata izan zen. Hau da, 2020. urterako, Espainiako Estatuko langileek 299 euro gutxiago jasotzen zituzten batez beste urteko soldatan 2000. urtearekin alderatuz gero, urte horietan zehar, noski, bizitza garestitzen joan den bitartean.

Beraz, Espainiako langileen soldata erreala, hainbat salgai erosteko gaitasuna alegia, murriztu egin da azken hamarkadan. Zehazki esanda, AMECOTik ateratako datuen arabera, Espainiako Estatuko soldata erreala % 0,047ko urteko batez besteko tasa metatura baino ez da igo 2008tik 2021era. Euroguneko hazkunde-tasa txikienetakoa. 2010. eta 2012. urteetako lan-erreformek langileen soldata errealean nabaritu zen soldata-debaluazio gogorra suposatu zuten. Horrela, CCOO sindikatuaren kabinete ekonomikoak egindako ikerketa baten arabera, 2019an, pandemia hasi aurreko urtean eta burbuila inmateriala lehertu eta hamaika urtera, soldata erreala % 6,2 txikiagoa zen 2008ko lan bera egiteagatik, INEren Laneko Prezioen Indizearen arabera ^[9].

Lana desarautzearen eta malgutzearen paradigma horrek belaunaldien arteko arrakala itzela sortu du krisiaren aurreko urteetan laneratu ziren langileen eta egungo gazte-langile klaseen artean, non, gaur egungo soldatetara behartuta egonda, hauek ez dieten ia aukerarik ematen haien bizitza baldintza egonkorretan erreproduzitzeko, ez bada gurasoek eskaintako aurrezkiengatik. 2018ko Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren azterlan baten arabera, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 40 baino gehiagok zailtasuna dute haien soldatarekin hilabete amaierara iristeko. Adin-talde bereko langile gazteak dira batez besteko errenta txikiena dutenak. 2015ean, 8.935 euroko urteko batez besteko errentarekin, gutxienez iritsi ziren. Gainerako adin-taldeak 10.000 eurotik gorako batez besteko errentekin mantentzen dira beti ^[10].

Soldata-baldintza prekario horiek ez diete uzten gazte langile klaseei gizarte-kontratu kapitalistan sartzen, hirurogeiko hamarkadatik aurrera langileen geruzak sartu ziren moduan. Parekorik gabeko paradoxa batean, erretiratuen adin-taldea (65 urte edo gehiago) da Espainiako Estatuan urteko batez besteko errenta handiena jasotzen duen adin-taldea. Horrek esan nahi du langile aktiboek, kasu askotan, gaur egun erretiratu-ta dauden langileek baino zenbateko txikiagoa kobratzen dutela, azken hauen Espainiako ekonomia kapitalistaren hedapen-aldian kotizatutako urte luzeak kontuan hartzen baitira. Horrela, gazteak gero eta gehiago herentzia inmateriala eta familiaren laguntzen menpe daude haien bizitza ordaindu ahal izateko. Horrek haien bizitzetan dakarren diziplinazko eta ezegonkortasunezko eragina kontuan izanda gainera.

Etorkizunari begira, agertoki are goibelagoa bihurtzen ari da COVID-19aren pandemiaren ondorengo inflazioaren krisiaren ezteandaren ondoren eta munduko balio-kateen krisiaren eta Ukrainako gerraren testuingurua kontuan izanda. Horren ondorioz, berriro ere langile guztien soldata errealak murriztuko dira, baina bereziki soldata-baldintza txarrak dituzten langileei eragingo die. Espainiako Estatuko patronal nagusiek dagoeneko hasi dute soldata-baldintzen aurkako erasoa, gehiegizko soldatei inflazioaren errua egotziz eta soldaten eta prezioen arteko zurrumbiliorik gerta ez dadin eusteko deia zabalduz.

CUANTIA	PRECIO	CONCEPTO	TOTAL
11,00	11,00	11,00	11,00
02,00	02,00	02,00	02,00
03,00	03,00	03,00	03,00
05,00	05,00	05,00	05,00
08,00	08,00	08,00	08,00
09,00	09,00	09,00	09,00
10,00	10,00	10,00	10,00
11,00	11,00	11,00	11,00
12,00	12,00	12,00	12,00
13,00	13,00	13,00	13,00
14,00	14,00	14,00	14,00
15,00	15,00	15,00	15,00
16,00	16,00	16,00	16,00
17,00	17,00	17,00	17,00
18,00	18,00	18,00	18,00
19,00	19,00	19,00	19,00
20,00	20,00	20,00	20,00
21,00	21,00	21,00	21,00
22,00	22,00	22,00	22,00
23,00	23,00	23,00	23,00
24,00	24,00	24,00	24,00
25,00	25,00	25,00	25,00
26,00	26,00	26,00	26,00
27,00	27,00	27,00	27,00
28,00	28,00	28,00	28,00
29,00	29,00	29,00	29,00
30,00	30,00	30,00	30,00
31,00	31,00	31,00	31,00
32,00	32,00	32,00	32,00
33,00	33,00	33,00	33,00
34,00	34,00	34,00	34,00
35,00	35,00	35,00	35,00
36,00	36,00	36,00	36,00
37,00	37,00	37,00	37,00
38,00	38,00	38,00	38,00
39,00	39,00	39,00	39,00
40,00	40,00	40,00	40,00
41,00	41,00	41,00	41,00
42,00	42,00	42,00	42,00
43,00	43,00	43,00	43,00
44,00	44,00	44,00	44,00
45,00	45,00	45,00	45,00
46,00	46,00	46,00	46,00
47,00	47,00	47,00	47,00
48,00	48,00	48,00	48,00
49,00	49,00	49,00	49,00
50,00	50,00	50,00	50,00
51,00	51,00	51,00	51,00
52,00	52,00	52,00	52,00
53,00	53,00	53,00	53,00
54,00	54,00	54,00	54,00
55,00	55,00	55,00	55,00
56,00	56,00	56,00	56,00
57,00	57,00	57,00	57,00
58,00	58,00	58,00	58,00
59,00	59,00	59,00	59,00
60,00	60,00	60,00	60,00
61,00	61,00	61,00	61,00
62,00	62,00	62,00	62,00
63,00	63,00	63,00	63,00
64,00	64,00	64,00	64,00
65,00	65,00	65,00	65,00
66,00	66,00	66,00	66,00
67,00	67,00	67,00	67,00
68,00	68,00	68,00	68,00
69,00	69,00	69,00	69,00
70,00	70,00	70,00	70,00
71,00	71,00	71,00	71,00
72,00	72,00	72,00	72,00
73,00	73,00	73,00	73,00
74,00	74,00	74,00	74,00
75,00	75,00	75,00	75,00
76,00	76,00	76,00	76,00
77,00	77,00	77,00	77,00
78,00	78,00	78,00	78,00
79,00	79,00	79,00	79,00
80,00	80,00	80,00	80,00
81,00	81,00	81,00	81,00
82,00	82,00	82,00	82,00
83,00	83,00	83,00	83,00
84,00	84,00	84,00	84,00
85,00	85,00	85,00	85,00
86,00	86,00	86,00	86,00
87,00	87,00	87,00	87,00
88,00	88,00	88,00	88,00
89,00	89,00	89,00	89,00
90,00	90,00	90,00	90,00
91,00	91,00	91,00	91,00
92,00	92,00	92,00	92,00
93,00	93,00	93,00	93,00
94,00	94,00	94,00	94,00
95,00	95,00	95,00	95,00
96,00	96,00	96,00	96,00
97,00	97,00	97,00	97,00
98,00	98,00	98,00	98,00
99,00	99,00	99,00	99,00
100,00	100,00	100,00	100,00

Hala ere, artikulu honetan frogatu den bezala, soldatek ez dute goranzko bidea erakusten, ez gutxienez azken hamarkadan. Hortaz, inflazioaren arrazoia enpresa-mozkinak eta ekoizpen-krisia dira, ez soldaten-kostuak. Hori hala izanda ere, covid osteko garaian errentagarritasun-tasak berrezartzeko, beste soldata-doikuntza bat egingo da langile-klasearen aurka. Espainiako Bankuak berriki egindako txosten batean emandako datuen arabera, Espainiako Estatuan lan-hitzarmen kolektiboetako langileen soldatak % 2,3 igoko direla aurreikusten da 2022an. Bien bitartean, inflazioa % 6tik gorako hileko tasetan kokatuko da batez beste urte berean; horrek esan nahi du, soldatak beti hiru aldiz gutxiago igoko direla, gutxienez, bizi-kostua eta prezioak baino.

DEVENGOS	DEDUCCIONES
----------	-------------

Gainera, txosten beraren arabera, gaur egun hitzarmen kolektiboetako atxikitako 1,2 milioi langilek baino ez dute soldata inflaziora indexatzeko klausula, hitzarmena duten langileen % 15ek hain zuzen. Kopuru hori askoz ere handiagoa zen 2008an, krisiaren eta PSOE eta PPren lan-erreformen aurretik, non 8 milioi langileek baino gehiagok prezioen igoyerari lotutako soldata-klausula zeukaten, hitzarmena zuten langileen ia % 70ek. Hala ere, 2010eko eta 2012ko lan-erreformek hitzarmen kolektiboek baldintzei egindako erasoaren ondorioz, Yolanda Díazen azken lan-erreformak mantendu dituenak, soldaten balioa handitzea enpresen produktibitateari eta errentagarritasunari lotuta dago, prezioen bilakaerari baino.

BEHERAPENAK /
DESCUENTOS

T. DEVENGADO	T. A DEDUCIR
1.475,00	244,12

-4,51
-11%

Firma del trabajador
Salario base

COPIAS
SUBTOTAL
ST TASABLE
IVA 1
NETO1

DEDUCCIONES

Base de cotización por contingencias comunes

*4.00
*4.00
*4.00
*0.69
*3.31

ONDORIOAK

Esan daiteke, egungo inflazio-krisiak, langile klasearen soldata eta bizi-baldintzen aurkako birdoitze berri bat ekarriko duela berekin. Hala ere, ibilbide luzeko azterketa bati esker ikus dezakegu soldata-baldintzak atzera egiten ari direla laurogeiko hamarkadatik, birmoldaketa neoliberala deritzonaren paradigma guztia sortu zenetik, hain zuzen ere. Orduz geroztik, **hirurogeita** hamarrekoko hamarkadako krisitik ateratzeko kapitalak inposatutako kondizio gisa, EBko erakundeek lan-erregulazio ezaren eta soldata-kostuen murrizketaren ezarri zuten. Horrek ondorio zuzenak izan ditu langileek kontrolatzen duten gizarte-aberastasunaren zatian. Era berean, aberastasun-kontzentrazio handiagoa dago kapitalaren eta burgesiaren eskuetan. Baina, era berean, langileen benetako pobretzea ekarri du azken urteotan.

Garrantzi berezia hartu behar du langile-klaseko belaunaldi gazteen arteko arrakalak. Izan ere, belaunaldi horien laneratzeak jada ez die soldata bidezko bizi-mantenua bermatzen. Horrek, gero eta mendekotasun handiagoa eragiten du familia-herentziaren eta biziraupeneko estatu-subsidioen aurrean, aurrezkirik eta ondasun gutxien duten familien kasuan batez ere. Belaunaldien arteko arrakala honek zailtasun handiagoa dakar langile gazteak Bigarren Mundu Gerra osteko kontratu sozial kapitalistaren antza duen zerbaitetan integratzeko eta, horrela, bake soziala bermatzeko.

Hala ere, irakurketa politiko zorrotzetik abiatuta, ez litzateke ondorioztatu behar bizi-baldintza okerragoa izateak belaunaldi berriak egungo *statu quo*-arekin apurtzaileagoa den jarrera politiko batean kokatzea ekarri behar duenik. Are gehiago, beldurrak, bizi-ezgonkortasunak eta beken, estatuko subsidioen edo familia-herentzien menpe egon beharrak bizi-menpekotasuna sor dezakete, jarrera politiko nihilista edo kontserbadoreetara bideratzeko. Hala ere, belaunaldien arteko arrakalak gero eta mesfidantza handiagoa sortzen du erakundeen erreformen bidez, lege aldaketa nabariak egin ahal izatea ziurtatzen duten jarrera politikoen aurka. Horrek ateak irekitzen ditu aurrekoen aldean, funtsean, desberdina den ziklo politiko berri baterako. Aurreko ziklo politikoak langile klasea estatuaren aparatuan txertatu izanagatik nabarmendu dira. Paradigma hori agortzen ari da, eta baliteke ez itzultze-ko izatea; horregatik, egungo garaietako haizearen irakurketa politiko egokia egin behar da, praxi politiko eraginkorra ahalbidetzeko. ●



RA	CA REGORA
NPO	

1 Munduko aberastasun soziala gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen eta zentralizatzen ari dela erakusten duen argazki oso bat izateko, Oxfam GKEak munduko desberdintasunari buruz egindako azken txostena kontsulta daiteke, nazioarteko erakunde kapitalista nagusien datu estatistikoetan oinarritua, ingelesez eskuragarri «First Crisis, Then Catastrophe» izenburupean.

2 Soldataren kategorian sakontzeko marxismoaren teorian Marxen *Capital* bera kontsulta daiteke bosgarren kapitulutik bederatzigarren kapitulura. Rosa Luxemburgoren *Introducción a la Economía Política* (5. kapitulua) eta Roman Rosdolsky *Genesis y estructura de El capital de Marx* *Estudios sobre los Grundrisse* (batez ere liburuarren III. zatiko gehigarria) lanen laburpen zabal eta osoa ere aurki daiteke.

3 Europako zentro eta periferia baten karakterizazioari buruzko sarrera egiteko Luciano Vasapollo, Rita Martufi eta Joaquín Arriolaren liburu kolektiboa kontsulta daiteke (2014): *El despertar de los cerdos PIIGS. Portugal · Irlanda · Italia · Grecia · España.*

4 Honaino aipatutako hiru dokumentuak Europako Batzordearen webgunean kontsulta daitezke. Gomendagarria da, batez ere, 1994ko *Libro Blanco sobre la competitividad, el crecimiento y el empleo* irakurtzea. Izan ere, nahiko hizkera zehatzarekin ezartzen dira hurrengo hamarkadetarako kapitalaren errentagarritasun-baldintzak babesteko Europako erakundeen estrategia politikoak, eta termino horiek ez dira gehiegi aldatu gaur egun.

5 Ziklo kapitalisten historia eta Espainiako Estatuan izan zituzten krisiak sakonago ulertzeko, Emmanuel Rodríguez eta Isidro Lópezen (2010) obra kontsulta daiteke: *Fin de ciclo. Financiarización, territorio y sociedad de propietarios en la onda larga del capitalismo hispano (1959-2010)*.

6 Emmanuel Rodriguezen obra *berria* (2022) *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*, frankismo garaitik gaur egunera arte klase ertainen aldi desberdinen sorrera eta desintegrazioa sakon aztertzen ditu.

7 Lan datuetan sakontzeko eta Maastrichteko Itunak inposatu zuen esparru desregulataile eta malgutzailea ulertzeko, Pedro Montesén (2001) obra kontsulta daiteke: *La historia inacabada del euro*.

8 Espainiako kasuan soldata erlatiboaren azterketa sakonagoa egiteko Diego Guerreroren (2000) kapitulua kontsulta daiteke: «Depauperación obrera en los países ricos: el caso español», *Macroeconomía y crisis mundial* lan kolektibokoa.

9 Aipatutako txostena 2021ean egin zen, eta on-line kontsulta daiteke CCOOren web orriko dokumentuen atalean, «Los costes económicos y sociales de la inestabilidad en el empleo y las reformas laborales de 2010 y 2012» izenburupean.

10 Txostena on-line kontsulta daiteke Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren webgunean, «Estudio sobre la pobreza juvenil» izenburupean.

Faxismoa Espainiako Estatuan: frankismoa

52

Testua

Carmen Parejo



«**E**spainiako Estatu berriaren eta, bestalde, aberriaren batasunari eta handitasunari zor jaioa den gobernu-ekintza eraginkor orok, espainiar guztien egite indibidual eta kolektiboa bere patu komunaren mende jartzea eskatzen du». Hitz horiekin hasten zen 1937ko apirilko indar «matxinoen» Bateratzeko Dekretua, Francisco Francok Ofentsiba Nazional-Sindikalistako Batzordeen Espainiako Falangeari (ONSBen EF) eta korronte karlistei ezarria.

Gerran, Falangeari lotutako oste faxistek me-rezitako aitorpena lortu zuten bloke kolpistaren aldetik, eta bateratzekak korronte faxista eta tradizionalista horiek guztiak Francok gidatutako aginte bakar baten pean lerrokatzea bilatzen zuen. Manuel Hedillaren errefusatzeari, adibidez, gertaera horren ondorio zuzena izango da; Jose Antonio Primo de Riveraren Falangeko ondorengoarena, zeinak heriotza-zigorra jasoko zuen lehenik, biziarteko kartzela-zigorra ondoren eta, azkenik, espetxetik aske, diktadorearen partetik ostrazismorako bazterketa. Gertakari horri dagokionez, aipagarria da Falangeko sektore gogorreko beste ordezkariak, tartean Pilar Primo de Riverak, ez zutela Francoren aurkako liskarrik hasi, patu hori beren gain hartuz.

1936an Errepublikaren aurkako estatu-kolperako batu ziren sektore erreakzionarioen eta Kapitalaren indarren multzo heterogeneoak, beraz, laster hasiko zituen bere nagusitasun-borrokak erregimen berriaren barruan.

Paul Preston ikertzaile anglosaxoiak *Franco: Espainiako Buruzagi* (*Franco: Caudillo de España*) liburuan adierazten duen bezala, gatazkak amaitu gabe zirauen oraindik: «Francoren bulegoan, mapa militarrek berehala eman zieten bide fakzio ezberdinen jarduerak batuko zituzten txostenei». Diktadoreak bazekien boterea gutizi zutela guztiek, eta ororen gainetik bere agintea ziurtatu nahi zuen.

Esan behar da, desadostasun ideologikoak gora-behera, larrienak ez zirela ideien arteko lehiak izan. Aitzitik, frankismoaren korronte ezberdinen arteko harremanak markatu zituztenak benetako botere-borrokak izango ziren.

Batasun organikoa indarra hartzen ari zen bitartean, erregimen berriaren gidari izango zen batasun ideologikoa ere eratu beharra zegoen. Eta Francisco Franco bere printzipioen traidore modura seinalatuko zuten Falangeko sektore bazterturik bazen ere, inork esan dezake Francoren erregimenak ez zuenik Espainiako faxismoaren printzipioak integratzea lortu bere egitura ideologikoaren eraikuntzarako?

FAXISMOA ETA NAZIONAL KATOLIZISMOA

Jatorrira itzuliz, egiazko faxismoa Italian Erromarako Martxaren babesean garatutakoa izan zen eta, Espainiako faxismoa, une hartaz geroztiko eraikuntza-prozesu bat. Azken horrek, hasieran, zaharberritze-erregimenaren krisia konpontzea zuen xede; ondoren, aldaketa etengabeen eta klase-borrokaaren zorrozte ageriko baten erdian, zantzu iraultzaile oro eragozte.

Horrela, Italiako prozesua eredutzat hartu zuen lehen egileetatik, etengabe ikus daiteke prozesu hura Espainiako testuingurura egokitze nahia. Bilaketa horretan, 30eko hamarkadaren hasieratik, eraikuntza horretarako giltzarri izango diren elementuak zehazturik agertuko dira jada: Erdi Aroko Inperioaren idealizazioan funtsatutako nazioaren ideia, erlijio katolikoa batasun espiritualeko elementu gisa eta, neurri txikiagoan, monarkia. Hiru elementu horiek ezinbestean egingo dute talka Europako faxismoen gorakadaren testuinguruko beste jarrera batzuekin, hala nola, Alemania naziarekin. Azken horiek ere isla propioa izango dute Espainiako Estatuan, batez ere lehen frankismoan, baina krisitik sortutako ideologia edo erreakzio hori hainbat tokitan kutsatu arren, lehian iraungo du estatu faxistari buruzko ideia puru baten bilaketan. Gaur egun eta kanpotik ere *faxista* hitzaren definizio zehatzari buruz ados jartzea hain zaila egiten zaigun arrazoi berberetatik, ez dira ideia garbizale hori ebaztera iritsiko.

1936an Kapitalaren indarrak eta sektore erreakzionarioak Errepublikaren aurkako estatu-kolperako batu ziren. Multzo heterogeneo horrek agudo hasiko zuen, erregimen berrian, hegemonia lortzeko borroka

Faxismoaren eta nazional-katolizismoaren printzipioei etengabe egin izan diete aurre, batik bat sektore falangista ez-frankistatik gertuko autoreek. Nolanahi ere, azken batean, nazional katolizismoa Espainiako faxismoaren garapen propioaren izaera konkretua baino ez dela errepara dezakegu, Diktaduraren babesean arrakasta izan zuen hura.

Frankismoak, edo faxismoaren gauzatze material eta zehatzerako aukera horrek, aurreko urteetan Espainian garatutako korrante faxisten arteko haustura bat ere ireki zuen. Horrekin, printzipio faxistei batetik eta tradizionalistei bestetik, baliagarri zitzaien ideologia sinkretiko bat gartzea erraztu zuen, Kapital handiarentzat guztiz erabilgarri zen ideologia bat. Horretan ez da kontraesan nabarmenik; postulatu -zentzu batean eklektiko- horiek faxista idealistenak, gainera botere zuzenetik baztertuak izan zirenak, erabat konbentzitu ez izana zentzuzkoa izan arren.



«GENE GORRIA»: PSIKIATRIA ETA FAXISMOA

Espainiako faxismoa ez du, historikoki, izaera arrazista batek ezaugarritu (*arrazista* hitzaren ohiko zentzuan bederen). Izan ere, urte horietan ez zegoen aparteko aniztasun etnikorik zuen lurralderik. Hala ere, bai eraiki zela arraza-ideal propio bat, erregimen-buruko psikiatren postulatu sasi-zientifikoetatik ateratako printzipioak oinarri harturik. Aipagarrienak Antonio Vallejo-Najera eta Juan Jose Lopez Ibor izan ziren.

Vallejo-Najera XX. mendearen hasieratik armadari eta diplomaziari lotuta egon zen eta, beraz, gerra-arteko Alemanian bizitzeko eta bertan psikiatriako ikasketak burutzeko aukera izan zuen. Nazismo alemaniarren miresle sutsu hori Francoren psikiatra nagusia izan zen, bere postulatuak frankismoaren krimenak justifikatzeko berebiziko papera jokatu zutelarik.

Haren «ekarpenik» ezagunena «gene gorria» deitu zuenaren bilaketa izan zen, ideia marxisten jarraitzaileen psikeari zein fisikoari eragiten zion determinismo biologiko moduko bat. Eugenesia selektiboaren baitako planteamendu horrek, besteak beste, 80ko hamarkadara arte luzatutako haurren lapurreta justifikatzeko balio izan zuen. Vallejo-Najerarentzat, «gorri»-en seme-alabentzako irtenbide bakarra beraien familiatik urruntzea eta, beraz, beraien izate «narriatua» iraul zezaiketen erregimenaren jarraitzaileen heziketa jasotzea zen.

«Marxismoaren eta buru-gutxiagotasunaren arteko harreman estuen ideiak aurretik ere azaldu ditugu beste lan batzuetan. Gure hipotesien frogapenak berebiziko garrantzi politiko eta soziala du; izan ere, eta gure ustea den bezala, psikopata antisozialek marxismoan militatzen badute, subjektuok haurtzarotik bereizteak gizartea halako izurrite beldurgarritik libra lezake». Antonio Vallejo-Najera. *Eromena gerran: Espainiako gerraren psikopatologia, 1939* (*La locura en la guerra: psicopatología de la guerra española, 1939*)

Egia da haur-lapurreta negozio arras errentagarria bihurtu zela, urteen poderioz, mediku eta erakunde erlijiosoentzat (Gizarte Laguntzaz arduratzen diren horientzat). Baina egia da, halaber, jarduera hori praktikan jartzeko funtsezkoa izan zela kontrolik gabe zebilen eta arraza hondatzen zuen «gene gorri» bati aurre egitearen ideia, bai eta horretarako ideologiaren garapena ere. Vallejo-Narejak bere obra ezagunenetako batean adierazten duen bezala: *Hispanitatearen eugenesia eta arrazaren onbideratzea* (*Eugenesia de la hispanidad y regeneración de la raza*). «Hispaniar arraza ahi-tzen duten gaixotasun-germenen aurkako higieneborroka irmoa». «Hispanitatea» arraza-identitate gisa ulertzeko ideia itzuliz, hitz-jokoa gorabehera teknikoki genetiko ez dena, baina bai erlijiosoa eta espiritual.

Lopez Iborrek «hispaniar arrazari» buruzko premisa berberak mantentzen ditu, bai eta arrazoiak, aurrerapenak eta berdintasun sozialak eragiten duten ustezko degradazioari dagozkionak ere. Alde horretatik, egun ere osasun mentaleko erreferente den klinikaren buru horrek zeregin nabarmena izan zuen, hala nola, homosexualen aurkako errepresioan, tortura-teknikak, lobotomiak eta elektroshockak egin baitzizkieten.

Nabarmentzea, baita ere, ijitoen aurkako jazarpena ohikoa izan zela, Europako gainerako herrialdeetan gertatu bezala. Ijitoen holokaustoak, Porraimos bezala ere izendatuak, soilik Europa erdialdean milioi erdi pertsona hil zituen. Espainiako Estatu frankistan jazarpena etengabea izan zen, eta herri horren degradazio soziala propaganda frankistaren funtsezko alderdia.

FRANCOREN ESPAINIA ETA BIGARREN MUNDU GERRA

Frankismoaren lehen urteetako funtsezko figuretako bat Serrano Suñer izan zen, Francoren emaztearen ahizparen senarra izateagatik «cuñadísimo» bezala ezagutzen zena.

Ramon Serrano Suñer germanofilo betea zen: berak bultzatu zuen Hendaian Adolf Hitlerrekin elkartzea, nazien kontzentrazio-esparruak bisitatu zituen eta bera zegoen kargupean eremu horietan zeuden espainiar jatorriko milaka presoek nazionalitatea kendu zitzaizkionean. Preso horiek, beste lurralde batzuetatik zetozen preso politikoak ez bezala, ez zeuden triangelu gorriarekin markatuta, aberrigabeen markarekin baizik, nahiz eta egungo ezkerreko zenbait sektorek lehena aldarrikatu. Bigarren marka horrek are ahulago bihurtzen zituen kontzentrazio- eta sarraski-esparruen barruan, azken batean, gaitasun diplomatikodun ezein estatuk ez zukeen beraien patuaren ardurarik hartuko.

Serrano Suñer tradizio politikoko kontserbadore batetik zetorren. Hasieran politikoki Niceto Alcalá-Zamorarekin lotu zen, eta Errepublikaren azken garaietan Gil Roblesen EAEK-ko (Eskuin Autonomoen Espainiako Konfederazioko) lerroak osatzera igaro zen. Legebiltzarkide gisa, berriki sorturiko Espainiako Falange txikiaren buru Jose Antonio Primo de Riverarengana hurbildu zen. 1938 eta 1942 artean sei aldiz izan zen ministro, horien artean Gobernazioko eta Kanpo Arazoetako Ministerioetan nabarmenduz, eta ONSBen Espainiako Falange Tradizionalistaren Batzorde Politikoko buru izan zen.

Europako mugimendu faxistekin eta Alemaniako nazismoarekin izandako harremanak gerra aurretik zetozen. Hala ere, kolpistek Alemania naziarekin eta Italiako Mussoliniren erregimen faxistarekin egindako akordioen ondorioz harremanok indartu egin ziren, eta Gerra Zibila deiturikoan indar beliko gisa garrantzia handia izan zuten.

Nabaria izan zen Alemania naziak Gernikaren bonbardaketan izan zuen eginkizuna, edo hiru indar erreakzionario bateratuek (frankistek, naziek eta faxista italiarrek) Malaga hiritik ihesi zihoazen milaka zibilen jazarpenean izandakoa. «La desbandá» izenez ezagutzen den sarraski ikaragarri eta ahantzi horretan, Espainiako kolpistek lurretik josi zituzten balaz, itsasotik faxista italiarrek eta airetik hegazkin naziek.

Sophie Thonon-Wesfreid abokatu frantziarrak, Ramon Serrano Suñerren aurkako kereila aurkeztu zuen 2000. urtean, gizateriaren aurkako krimenak egotzirik. Bertan, Bigarren Mundu Gerrako lehen frankismoaren eta nazien gobernuaren arteko lankidetzak estuan, disidente politikoak jazartzeko eta akabatzeko zuzeneko harremanari eta praktika sistematikoari buruzko hainbat frogak aurkeztu zituen.

Serrano Suñerrek Berlinera bidaiatu zuen 1940ko irailean eta Hitler eta Himmlerrekin bildu zen. Bileraren ostean, Reich-eko Segurtasun Bulegoak gerra-presoen esparruetan zeuden espainiar guztiak kontzentrazio-esparruetara lekualdatzeko agindua eman zuen, Genevako Konbentzioa errespetatuz. Kontzentrazio-esparru horietara bidalitako 9.300 pertsonetatik 73 bakarrik atera ziren bizirik.

Kriminal hori, beste asko bezala, ohean hil zen 2003an, bere kontrako epaiketarik hasteko astirik eman gabe.

Alemania naziak SESB inbaditu ondorengo «Errusia errudun da!» diskurtsoak Espainia frankista Dibisio Urdinaren bidez Bigarren Mundu Gerran sartzea ekarri zuen. Teorian borondatezko banaketa izan zen, baina parte-hartzaile askoren helburua erregimen berriaren jazarpena ekiditea zen, beren izena edo familiena garbituz. Luis Garcia Berlanga zinemagileak, adibidez, Dibisio Urdinarekin bat egin behar izan zuen bere familiaren aurkako errepresioa saihesteko, bere aitak Errepublikan Alacanteko gobernadore zibil gisa bete zuen karguagatik.

«Cuñadisimoaren» gainbehera urte horietan zehar izan ziren bestelako gertaera batzuekin, batez ere nazioartekoekin, dago lotuta. AEB aliatuen alderdian sartu izanak eta Europako potentzia faxisten porrotak erregimen frankistaren nazioarteko harremanetan aldaketak behartu zituen. Horrela, Europako erregimen faxistekiko begikotasun bereziagatik nabarmendu ziren figura batzuk atzean uztea ere ekarri zuen, Serrano Suñer kasu.

Barne-mailan, Erregimenaren alderdi bakaurrean parte hartzen zuten fakzioen arteko eztabaidak aktibo mantentzen ziren. Nabarmentzekoa da 1942ko abuztuaren 15ean karlismoari lotutako indarrek Bilboko Begoñako Andre Mariaren Basilikan egin zuten atentatua, Falangeko batzorde politikoa berregituratzea eta «cuñadisimoa» bere kargutik ateratzea behartu baitzuten.

Hala ere, Erregimenaren lehen garaia eta estatut berriko faxismoaren eraginaren amaiera bezala aurkeztutako propagandatik urrun, ONSBen EF tradizionalistak eginkizun zentral eta organikoak izaten jarraitu zuen diktaduraren garapenean.







FAXISMOA ETA ESTATU FRANKISTAREN ERAIKUNTZA

Estatu frankistaren eraikuntza-zutabeen oinarriak lehenengo frankismoan kokatzen dira, hau da, Bigarren Mundu Gerra amaitu arte iraun zuen garaian. Izan ere, «alkandora zahar» askoren lekua faxismo historikoarekin lotura txikiagoa zuten beste protagonista batzuek hartu zuten. Hala erregimen frankistaren egitura organikoa, nola funtsezko printzipioak aro horretan finkatu ziren, eta hurrengo urteetan ia aldaketarik gabe mantendu eta indartu ziren.

Erregimen frankistaren funtsezko zortzi legeetatik bost 1947a baino lehen garatu ziren, eta urteekin ia ez zuten inolako aldaketarik jasan. Esan behar da horietako azkena, 1977ko Erreforma Politikoa Legea, 78ko edo Trantsizio bezala ezagutzen den erregimenaren eta egungo konstituzioaren oinarri juridikoa izango dela.

1943an, munduko gatazkaren indar korrelazioa aldatzearekin batera, Franco diktadoreak frankismoaren alderdi bakarrari izena aldatzea erabaki zuen, eta ONSBen Espainiako Falangea ordutik aurrera «Mugimendu Nazionala» edo, sinpleki, «Mugimendua» deitzen hasi zen. Izen aldaketa soila izan al zen?

Hala, ez zuen ideologia eta antolamenduarekiko aldaketa esanguratsurik ekarri. Mugimendu Nazionalak, ONSBen Espainiako Falangearen printzipio berberei jarraituz, frankismoaren bizitza sozial osoa egituratzeko ardura izango zuen.

Lanaren Forua:

1938ko Lanaren Forua da erregimen berriaren funtsezko legeetatik lehena, Edmondo Rosoniren *Carta Lavoro*-k eta 1927ko Italiako Kontseilu Faxista Handiak inspiratua.

Estatu berriak xede zuen gizartea bizitza publikoan parte hartzeko eta antolatzeko hiru korporazioetan biltzen zen: familia, udalerria eta sindikatua.

Beraz, Sindikatu Bertikala deritzona erregimen frankista garatzeko funtsezko elementu bezala egituratzen da. Etorri faxistadun sindikatu horrek langile klasearen gaineko kontrol-elementu funtzioa zuen, interklasismoa ezarri baitzuen gatazka «konpontzeko» oinarri gisa. Greba eskubidea ezabatua izan zen, eta lan-arloko auziak aldarrikatzeko modu bakarra Falangeak kontrolatutako sindikatu bidezkoa izan zen 50eko hamarkada iritsi arte. Enpresariei erabateko leialtasuna, laguntza eta babesa zor zitzaizkien, eta aurrerantzean «hornitzaile» bezala ezagutuko ziren, Jesus A. Martinez Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Historian katedradunak *Historia de España en el siglo XX (1939-1996)* lanean adierazten duen moduan.

Egia esan, etorri faxista argiko elementu horrek erresistentziarako eta borrokarako elementu gisa ere balio izan zuen erakunde politikoentzat. Hala nola, Espainiako Alderdi Komunistarentzat, garai hartan klandestinitatean zegoena eta 1960tik aurrera infiltrazio-prozesu bat hasi zuena haren barruan.

Dakigunez, langile klasea otzantzeko interesa da faxismoaren planteamendu interklasistaren atzean dagoena, erreakzio horren sektore utopikoek planteamendu antikapitalista dutela uste izan arren.

Lanaren Foruak «Estatuak emakume ezkondua lantegitik eta fabrikatik askatuko zuela» agintzen zuen. Izan ere, Falangea eta bere Emakumeen Atala, estatu frankista berriko emakumea modelatzeko berriazko arduradunak izango ziren.

Etorri faxistadun Sindikatu Bertikalak langile klasea kontrolpean izateko elementu gisa jardun zuen, gatazken konponbiderako oinarri gisa interklasismoa ezarri baitzuen

Emakumeen Atala:

XIX. mendearen amaieratik aurrera garrantzizko aldaketak izan ziren, eta horrek eragina izan zuen emakumeak gizartean zuen rolean. Emakumeen ekoizpen-laneko partaidetza handitzeak politika eta bizitza publikoarekiko esku-hartzea ahalbidetu zien. Lehenik sindikatuen eta, gero, alderdien eta bestelako erakundeen bidez. Hirietan, gainera, emakumeek emantzipatzeko abantailak izan zituzten, postan, hiri-garraioan edo telefonian enplegu hobek askuratzeko aukera baitzuten. Emakumearen goi-mailako ikasketetarako sarrerak, kultura-mailan mugak izanik ere, aldeko joera mantendu zuen.

Horrela, Errepublikako emakumeak, batez ere hiriguneetan, garrantzi handia hartu zuen gizarte-aldaketetan, Errepublikaren konstituzioan eta legedian ere ikusten den gertaera.

Charles Fourier sozialista utopikoak zioenez, «emakumearen emantzipazio-maila gizarte baten emantzipazio orokorraren barometro» da. Hain zuzen, baremo horrek frankismoaren diktaduran garapen sozial orokorrak lortu zuen dimentsioa ulertzeko balio digu.

Lanaren Foruak zioen bere premisen artean zegoela «emakume ezkondua lantegitik eta fabrikatik askatzea». Egia esan, hiriko lanbide liberalekin lotutako jarduera askotatik ere «askatu» zituen emakumeak: behin ezkondua, kaleratzera behartu zituen –kalte-ordain batekin– eta ezkonduetako emakumeak behartu zituen, beren lanbidearekin jarraitu ahal izateko, senarren baimen esplizitua izatera. Emakume ezkonduak ez ezik, ezkongabeek ere «adin-nagusitasuna» galdu zuten, eta harreman estueneko familiako gizonaren erabakiaren menpe geratu ziren (aita, anaia, osaba, lehengusua...).

Familia, udalerri eta sindikatuarekin batera, «Mugimenduak» gizarte berriari inposatutako egitura organikoa zen. Rol tradizionalak zeregin gailena dute Espainiako planteamendu faxistaren erakuntza ideologikoan, hiru elementuren ondorioz batez ere: batetik, katolizismoaren eta korrante tradizionalisten pisuagatik; bigarrenik, iragan ideal hori nabarmentzeko eta, beraz, orduko aurrerapen sozial oro baztertzeko beharrari zor; eta azkenik, gerra osteko testuinguru batean amatasuna bultzatzeko beharrari erantzuteko, non hildakoen eta erbesteratuen ondoriozko ageriko krisi demografikoari irtenbidea eman behar zioten.

Esan gabe doa dibortzioa, Errepublikan baimendua, debekatu egin zela, bai eta amatasunarekin loturarik ez zuen sexu-harreman oro ere. Prostituzioa izan ezik, izan ere, modu ezin hipokritagoan onartu zen, testuinguru berri horretan emakume

askorentzat irtenbide bakarra baitzen. Eta Erregimenak onartu egiten du, berriro diot, hipokrisiaz, baina tolerantzia argiz eta emakume horiek prostituitzera zeramatzan egoera hobetzeko asmorik gabe.

Falangeak zeregin nabarmena izango du Erregimenaren emakumeak «etxeratze» premian, horrela sortzen delarik Pilar Primo de Rivera buru zuen Emakumeen Atala.

Emakumeen Atala ONSBen Espainiako Falange alderdiaren adar femenino gisa sortu zen, 1934an. Urte horietan eta gerran, bere eginkizun nagusia gizonezko pare ideologikoei derrigorrezko laguntza ematea izango da. 1937ko indar erreakzionarioen bateratzearekin, talde ezberdinetako emakume-erakunde guztiak, karlisten «margaritak» kasu, deuseztatuta geratuko ziren, Emakumeen Atala diktadurako emakumeen erakunde bakar izatera pasatuz. Hala ere, bere baitan hiru zatiak mantendu ziren: falangistak, jonsistak eta margaritak; horrek tirabira batzuk sortu zituen, batez ere karlismoaren adar femeninoarekin.

Mundu Gerran, Emakumeen Atalak lotura sendoak ezarri zituen Alemania Naziarekin, hura hiru aldiz bisitatuz, bai eta Italia Faxistarekin ere.

Horko militanteen artean, Clara Stauffer bezalako figurak nabarmen ziren, alemaniar jatorrikoa eta ideologia nazia erakutsitakoa. Staufferrek Emakumeen Ataleko Prentsa eta Propaganda Bulegoko zuzendaritza kargua izan zuen Gerra Zibilean. Gainera, nazien ezkutaketa-sare eta aterpeetan parte hartu zuen, «ratlines» izenez ezagunak, Bigarren Mundu Gerran eta ondoren. Horregatik, 1947an Kontrol Aliatuko Kontseiluak Espainiari galdegindako nazien zerrendako emakume bakarra izan zen. Erregimen frankistak, zerrenda horretako gainerako izenekin gertatu bezala, babesa eman zion Clara Staufferi, 1984an Madrilen hil zelarik. Beste lider nabarmen bat Carmen Werner Bolin izango zen, jatorri germaniar-espainiarrekoa. Bera izan zen Darmstadtetik gertuko Gazte Hitlerlarren instalazioak bisitatu eta 1937an Alderdi Naziaren Nurembergeko Kongresura joan zen segizioaren buru.

Askotariko argitalpenez gain, Emakumeen Atala aktiboki integratuta zegoen Erregimenaren erakuntza ideologikoan, batez ere emakumeari, haurtzaroari eta gizarte-laguntzari dagokienez.

1977an, Emakumeen Atala desagertzea erabaki zen, eta haren zerbitzuak Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetza sortu berriari esleitu zitzaizkion. Aldi berean, militanteak, oposizioak aurkeztu beharrik gabe, Estatuaren menpeko hainbat zentrotan liburuzain gisa birkokatu zituzten. Eztabaida handia sortu zuen horrek.

Urte horietan, ideologia sozial elitistaren, interklasismo sindikalaren eta erregresio sozialaren babesean, aurrekaririk gabeko kapital-metaketa prozesu bat ahalbidetu zen. Prozesu hori gaur egungo egitura ideologiko eta ekonomikoa ulertzeko erabakigarria izango da

FAXISMOA ETA KLASA BORROKA: IREKITASUNA

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, erregimen frankistak bere nazioarteko harremanak berrantolatatu zituen. 1947an, AEBek Francoren erregimena Nazio Batuen aurrean kondenatzeari uko egin zioten. 1953an Madrilgo Ituna sinatu zen eta, une horretatik aurrera, AEB izango dira erregimen frankistaren nazioarteko funtsezko kide berriak.

1947ko irailean, AEBek CIA (Central Intelligence Agency) sortu zuten eta handik gutxira, MI6 britainiarrarekin batera, Gerra Hotzeko armada paramilitar sekretu garrantzitsuenetako bat: Gladio Operazioa.

Gladio Europan izaten ari zen sozialismoaren aurrerapena borrokatzeko sortu zen, eta bere jarduerak eragin handia izan zuten Italian, esaterako, urte horietan Alderdi Komunista oso indartsua baitzen. Gladioren agente ugari naziak eta faxista europarrak izan ziren, gerrako krimenengatik epaituak izatea saihestea bilatu zutenak beren lanaren truke. Ez da inolako sekretua, AEBek Europatik ihes egindako dozenaka nazi helburu desberdinekin berrerabili zituztela, batez ere, ikerketa zientifikoaren munduarekin loturik, baina, batzuetan, baita hain ezagunak ez diren operazio paramilitarretarako ere. Italiako Gladiori buruzko ikerketan, Guido Salvini epaileak «berunezko urteetako» eskuin muturreko erakunde terroristak, La Fenice, Vanguardia Nacional eta Ordine Nuovo, Estatuaren aparatuarekin eta CIArekin lotu zituen, goragoko instantzia horren aginduak baino betetzen ez zituztela azpimarratuz.

Francoren Espainia faxismo europarraren babesleku izango da, Bigarren Mundu Gerraren ondoren bezala. Estatu bat, premisa faxisten pean sortua eta garatua, AEBek emandako salbuespenaren babesean aurkitzen zen eta, zalantzarik gabe, nazioarteko antikomunismoaren erreferente hori Gladioren egitura babesteko leku ezin hobea izan zen. Horrela, Francoren erregimenak babes eta in-punitate osoa eman zizkien Vincenzo Vinciguerra edo Stefano Delle Chiaie bezalako neofaxista italiarrei, Gladio Operazioarekin eta Kondor Operazioarekin (Latinoamerikako aldaerarekin) zuzenean lotutakoei. Are gehiago, Delle Chiaie Montejurra gertakarien egileetako bat izango da Nafarroan, bunker frankistaren inguruko nukleo gogorretik aldentutako sektore karlistaren aurkako erasoarena.

Frankismoa, hasieran esan bezala, talde heterogeneo baten batasuna da, talde faxistak, tradizionalistak, katolikoak eta burgesia handia uztartzen dituenak. Frankismoa, beraz, guztien arteko harreman sinbiotikoaren bistako frogak da. Urte horietan, ideologia sozial elitistaren, interklasismo sindikalaren eta erregresio sozialaren babespean, aurrekaririk gabeko kapital-metaketa prozesua finkatu zen, gaur egungo egitura ideologiko eta ekonomikoa ulertzeko prozesu erabakigarria.

Faxismoak Kapitalaren ustiapenerako tresna gisa funtzionatu zuen eta funtzionatzen du, kontraesanak kontraesan eta nahiz eta diskurtso utopikoak izan, errealtatea hurrengoa da: Vallejo Najeraren «gen-gorriak» haurtxoak lapurtzeko balio izan zuela, bai eta presoen esklabotza edota disidentzia politiko ororen aurkako errepresioa justifikatzeko ere. Eta horrek guztiak klase burgesa pribilegiatu eta ahalmentsu mantenduko zuen *statu quo* oso bat bermatzeko irabazi izugarriak ekarri zituen. ●



**«Arrazoirik gabeko herria,
antzinatik doktrinatua
Hantuste-arrazoiak huts
egiten duela uste izatea
Eta, haren aurrean,
zigorgabe oihukatzen da:
Hil bedi adimena,
predestinatua zegoen
Kateak gurtzen
amaitzeko»**

Argitalpena
2022KO UZTAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


arteka